

67

3 euro • 2002ko APIRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: BIGARREN HEZKUNTZAKO  
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA •  
TEKNOLOGIA BERRIEI BESTE BEGI-  
RADA BAT • OLERKIGINTZA •  
FRAISOROKO SEHASKA ETXEA



ELKARRIZKETA

Uri Ruiz Bikandi

Ahozkotasuna eta bigarren hizkuntza





gaia

## BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Iparaldean zein Hegoaldean Bigarren Hezkuntzako irakasleei eskatzen zaien prestakuntza ezagutu dugu, bai ezagutzari dagokiona eta bai pedagogia arloari dagokiona.



elkarrizketa

## URI RUIZ BIKANDI

Ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabeakuntza prozesuan ahozotasunak garrantzi handia du. Hainbat proposamen eskaintzen dizkigu gaia aditua den emakume honek.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ezagutza eta heziketaren arteko balantza

16 elkarrizketa

## URI RUIZ BIKANDI

24 teknologia berriak

Teknologia berriei begirada desberdin bat

Iker Laskibar

26 esperientzia

Olerkigintza Oñatiko Mikel Aozaraza ikastetxean eta Hatsa Elkarte

29 esperientzia

Osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentzioa

Txus Conjil eta Izar Arregi

33 berriak

39 eskolako zertzeladak historian

Gipuzkoako Fraisoro sehaska etxea

Arantxa Uribe-Etxeberria

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08


Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Uribe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAMGrafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Uri Ruiz Bikandi (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002 /III/25 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO





**2 2k m tz r n 25 , IL N**

**ZEN EM TE**

Ex z g e t i k e n k z i s t e m e n t z  
 M a r k e t u n k e (m u s k k u s t l z n z g) u  
 n e t z e z u r e n m n  
 T z k z n m n h l s i u k n r  
 n u n u n t z F a n n z  
 T i f n 5 1 5 - F x 5 1 3 1 1  
 E m l e n e l f e n n z e v s  
 H l e x z z e G z r t 3 e k 9 l G z m  
 n z e k Z u z n r z  
 E k l e n e t x l 1 1 1 V e n 3 s z  
 ( t r z F z n t z )

n e k u l e r  k s l  e f s n l

l z n ..... l n .....  
 E r k u n ..... l e z n t r ..... t l

H l .....  
 T i f n ..... F x .....  
 E m l .....

- G z k s
- e r t s l k s
- M u s k k u s t l z

**O z k s EUSK L UN J U EGI n h z l k**

H U - H E Z K U N T Z E N E Z U C I E T I S K U K L I S M L G U Z Z I E N E  
 E T E G E I E M I U K ( T U ) U L I U E S K L K  
 l f n H y l s l n l  
 k k z l y h n e k l u n t z n s M l z z e n l n n t u  
 U I R A N T Z K L I R A N T Z E T L E H E N H U T Z E L E G U G I L I E N  
 G E N E N H Z I U T K T L E K  
 M r t e m n  
 E m k u n h e l e t l k t  
 n e l n e z n a m e n e t z e n t a r k n e n n u n z e l a u n e t l  
 U T E T I K U T E K E U H E Z K U N T Z K U L E E U T  
 H U - H E Z K U N T Z K G N I K U L T I N T U  
 L l u z m n e h  
 H u r h z k u n t z k C r n e k u l t r a n e k z u z n r

**n r t s l k s GUGGEINHEIMEK u t n n**  
 M u s k k u s t l z ( n n t z k )

H u z e k m u s k e n n Z u n k e a t z  
 Z e n e n u u n t k n n u l e G l w  
 E n t u r t l l u r t z n ( n n k z n z u )

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

E I X E I Z I Z E I G Z I E  
 G I E I K S I L

G z n G z k s l u r n l z  
 G z n z l k z z n r z

# editoriala

## apirila

### Aukera ugari hik hasi udako topaketa pedagogikoetan



Gure eskola lortze-ko ahaleginean Udako Topaketa Pedagogikoak elkar-gune eta indartze paregabea izateko gure desio eta gonbidapen zintzoena

Datorren ikasturterako aurrematrikulazio datuak ezagutarazten ari diren honetan, euskarazko ereduari, D ereduari, ikasi nahi dutenen kopurua etengabe goraka doala nabarmentzen da.

Horrek euskal irakasleen beharra dakar berekin. Eta irakasleek ahalik eta ondoen prestatuta egon behar dute kalitatezko hezkuntza eskaini nahi bada.

Oh! Kalitatea aipatu dugu. Zer da, bada, kalitatea? Nolakoa da Madrildik ezarri nahi den Kalitatearen Legea? Nola jasotzen da kalitatea Parisen sortzen dituzten legetan?

Ezaguna da euskal esparruan gure hezkuntza normalizatzeko egiten ari diren ahaleginak oso baldintzatuta daudela urruti samar hartzen diren erabakiengatik. Horrela ezagutu dugu, eta munduak daraman martxa ikusita, aurrerantzean ere horrela izango dela dirudi.

Bestalde, kanpoko eragile horiek egonda ere, gure hezkuntza asko aldatu

da azken berrogei urtetan. *Txoro* batzuen ametsa izan zena, pixkanaka gorpuzten joan da eta gaur egun errealitate indartsu bihurtzen ari da.

Hala ere, euskal hezkuntzaren normalizazioa lortzeko asko da falta dena, eta hori gutxi balitz, *normalizazio parrametroak* etengabe aldatzen ari dira.

Duela gutxi arte helburua ikasleak bi hizkuntza orekatu lortzea baldin bazen, gaur egun eleaniztasuna hartzen da normalizaziorako bidetzat. Lehen inguruko etorkinak baldin baziren hona zetozenak, orain urrutiagotik datoz. Hizkuntza eta ohitura ezberdinak izateaz gain, bestelako kultura, osasun bizi-pen, elikadura, sexu harreman, sinesmen... dituzten pertsonak inguratzen dira. Orainsu arte ikasgaiak lantzeko liburuak baldin bazen irakasleok genuen euskarri ia bakarra, une honetan, teknologia berrien bitartez aukera asko ugaritu da. Eta zer esanik ez espresio munduan, balioen aldaketan eta aba-

rretan gertatzen ari diren eraldaketak.

Horren guztiaren aurrean, euskal hezkuntza normalizatu nahi duen orok jarrera aktiboa behar du; gizartearen garapena behatu, hausnarketetan parte hartu eta hautuak egin. Orain arte egindakoaz harro egoteko eta etekina ateratzeko modurik ederrena da aurrera begira asmatu ditugun ildoak indartzea eta asmatu ez ditugunak aldatzea.

Bide horretan lagungarri izan nahi du hik hasik, berari dagokiona ahalik eta ondoen betetzen. Horretan ahalegindu da, Pedagogia Fakultatearekin elkarlanean, aurtengo Udako Topaketa Pedagogikoen eskaintza egiterakoan. Inoiz baino aukera zabalagoa, 30 ikastaro, ia guztiak euskara hutsean.

Kanpokoan sudurra sartzearen aurrean, Euskal Irakasleok izan dezakegun elkargune eta indartze paregabea burutuko dugulakoan, parte har dezazuen gonbidatzen zaituztegu.

# kronika

Arrasateko Arizmendi ikastolak eta Baionako Insup erakundeak Arinsup GEIE elkarte sortu dute. Interesgune ekonomiko duen Europako elkarte da GEIE, eta eragileen asmoa Europan zubiak eraikitzea da, batez ere komunikaziorako teknologia berrien inguruan. Horrela, formakuntza eta pedagogia garatzeko, informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan oinarrituko da Arinsup. GEIErekin bi erakundetako pedagogia taldeen elkarlana areagotuko dela aditzera eman dute ordezkariak. Era berean, elkarren arteko trukaketen bidez partaideen ahalak eta gaitasunak indartuko diren ziurtasuna dute. Isabelle Mokny Insupeko Baionako zuzendariak adierazitakoaren arabera, "Europatik eskaintza oparoa har genezake, eta elkarlanean, zailtasunak dituzten ikasleekin eta langabeekin erabili, bi herrialdeetan gizarteratze prozesua bermatzeko".



## Kalitatearen Legearen aurkako iritziak nagusi dira

Espainiako Hezkuntza ministro Pilar del Castillo Kalitatearen Legearen oinarriak aurkeztu dizkie erkidegoetako sailburuei.

Lege berriaren zirriborroak hainbat aldaketa aurreikusten ditu. Bata ikasketa amaieran azterketa edo errealizazioa ezartzea da. Beste bat ikasketa ibilbide berriak sortzea da. Hirugarren bat hiru ikasgai gainditzen ez bada errepikatu beharra da. Laugarren aldaketa ikastetxeetako zuzendarien izendapenari dagokiona da. Orain arte Eskola Kontseiluak izendatzen bazituen, lege berriaren arabera Klaustruak, Administrazioak eta Eskola Kontseiluak egingo lukete. Bosgarren aldaketak atzerriko hizkuntzari eragiten dio. Orain arte atzerriko lehen hizkuntza ikasten hasteko derrigorrezko adina 8 urtekoa bazen,

orain 6 urtera jaitziko litzateke. Seigarren aldaketak ikasleak zigortzeko "justizia azkarreko baliabideak" ezartzen ditu. Eta azkenik, derrigorrezko hezkuntzan sartzen ez den 3-6 etapa zentro pribatuek itunpeko egitea aurreikusten du.

Horren aurrean, hezkuntza arloko hainbat erakunde zein sindikatuk aurkako jarrera agertu dute. Besteak, beste, Hezkuntzako Gizarte Eragileen BILGUNEAK 400 pertsonak sinatutako agiria aurkeztu du, eta aurretiaz jende gehiagok sinatuko duen segurantzara agertu du. Agiri horrekin "Espainiak inposatutako legearen aurka, Guk Gure Hezkuntzari bai" esango zaiola argi eta garbi adierazten dute. "Iragarri zaigun "Uniformalizazioaren Legeari", oker deitutako Kalitatearen Legeari, Ez esango diogu" dio agiriak. "Bai esango diogu, ordea, Guk Geure Hezkuntza euskaldunari, kalitatezkoari, ele-aniztunari, gizarte mailaketaren gainditzailari, integratzaileari eta parte-hartzaileari". Agiriaren azterketa sakonagoa egingo dute hemenetik aurrera, ondoren irtenbide bat proposatzeko.

Aurrera begira PPren inposaketari aurre egingo dion "fronte gogorra" osatzeko asmoa agertu dute BILGUNEAKo ordezkariak, eta xede horrekin hainbat ekintza egingo dituzte hurrengo hilabeteetan.

## Jadanik zaila izango da, gizakiok abere ere bagarela kontuan hartu gabe teorizatzea

Joxe Azurmendi



### Unibitza osatzeko lehen urratsak eman dira

Euskal Herriak Bere Eskola ekimena talde bezala eratua gelditu da Altsasun egindako batzarraren ostean. Oraingoaz ikasle, irakasle eta gurasoek osatutako taldeak 39 herritan sortu dira. Hemendik aurrera, talde horiek sendotzeaz gain, gehiago sortzeko asmoa agertu zuten eragileek, eta baita talde horien arteko harremana sendotzea ere.

Unibertsitatean ere beste erakunde berri bat sortzeaz dago. Euskal Herriko Unibertsitate Barrutiaren aldeko taldeak batzar nazionalerako deia egin du Unibitza plataforma sortzeko.

Unibitzaren helburua unibertsitate barruti bakarra sortzeko dauden arazok aztertu eta gero proposamenak egitea da, azkenean Euskal Unibertsitatea sortzeko.

Jose Miguel Campillo plataformako kideak euskal eredu propioaren alde orain arte egindako lana nabarmendu du. Nahiz eta hiru barruti eta sei uniber-

tsitate egon, arazo komun bat badagoela adierazi zuen, barruti propio baten gabezia. Arazo nagusia banaketa administratibo hori dela adierazi du.

Hala ere, egoera aldatzeko bitartekoak badaudela ikusten dute Euskal Herriko Unibertsitate Barrutiaren aldeko taldeko kideek, eta horren alde dagoen gehiengo abian jarri behar dela. Ekimen hori bultzatzen dauden talde eta erakundeak ugari dira, besteak beste; Euskal Adarrak, UEU, Euskal Irakasleen Elkarte (EIRE), AEK, EHE eta udalbiltza.

Euskal Adarra taldekoen iritziz arazo denen artean konpondu beharra dago. UEUk orain arte egin den lana azpimarratu du, eta sostengua azaldu die barruti bateratuaren aldeko guztiei.

EIREk iaz egin zuen kongresuan euskal barrutiaren inguruko idatzi bat onartu zuen eta hori aintzat hartuko da.

Unibertsitateko barrutiak irten gabe, ikasleek greba egin zuten martxoaren 6an LOUren aurkako jarrera erakusteko. Ikaslea Abertzaleak taldeko kideek Manuel Montero EHUko errektorearen eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuaren jarrera kritikatu zuten, "sekulakoak bota ondoren, apal-apal bere nagusiaren ordenak" betetzen ari direlako. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Jesus Laguna, aldiz, legearen alde agertu da, nahiz eta esan hainbat aldaketa egiteko aukera utzi behar duela bakoitzak bere esparruak hobekuntzak bideratzeko.

Nafarroako behin-behineko irakasleak greba egin dute DBHrako deitzekoa den 2002ko Lan Eskaintza Publikoa gelditzeko eskatuz. 375 irakaslerengan eragingo duen deialdia izanen da, eta deialdiarekin duten desadostasuna adierazteko egin dute greba. Irakasleen iritziz sistema mota horrek langileen memoria ahalmenari ematen dio lehenetsia eta ez pedagogia gaitasunari.


Horrez gain, inguruko erkidegoetatik oposaketak egitera etor daitekeen jende andanarekiko beldurra ere adierazi dute. Izan ere, EAEn, Aragoian eta Errioxan ez da lan eskaintza eginen hurrengo urtera arte.

Bestalde, lan baldintzak berrikusteko ere eskatu dute. Lan finkoa duten irakasleekiko diskriminazioa salatu dute, ez baitute antzinakotasun saria jasotzen, ez eta familia izateagatikoa laguntza.

EAEn beste neurri batzuk ezarri dituzte hizkuntz eskakizunik ez duten irakasleentzat. Iralek (Irakasleak Euskalduntzeko Programa) deialdi berezia egin du hizkuntz eskakizunik gabeko behin-behineko irakasleak eskakizuna lordezaten. Horrela, datorren urteko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan Lan Eskaintza Publikora aurkezteko aukera eman nahi zaie.

LAB sindikatuak ez du babestu lraleren ezohiko deialdia. Sindikatuak aditzera eman duenez, "gehiengo (%87) euskaldunaren eskubideak urratu dira, hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duten gutxi batzuenak (%31) hobesteko". Horrez gain, oso kritikoa agertu da egonkortasun politikan hizkuntz eskakizuna betetzen ez dutenentzat 325 plaza izango direla ikusirik.

# Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza







# Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza Ezagutza eta heziketaren arteko balantza

Gaur egun irakasleen prestakuntza aipatzen denean, hainbat arlotan trebatzeko ikastaroak etortzen zaizkigu burura. Irakasle direnei bideratuta egon chi dira, irakuntzan dabiltzanei, alegia.

Lanbide horretan aritzeko, ordea, ikasketak egin behar dira leherdabizi.

Ikasketa horiek ez dira berdinak Iparraldean eta Hegoaldean, eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko ere ez. Bigarren horien ibilbidean kokatu gara oraingoa eta irakasle izateko nolako prestakuntza jasotzen duten jakin nahi izan dugu. Nahikoa ote da eskolak emateko? Eta ikasleak hezteko?

Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzean gauza anitz aldatzen zaizkie ikasleei, eta horieko bat irakasle kopurua da. Hasierako mailtan irakasle batek ematen ditu ikasgai gehienak, eta Bigarren Hezkuntzan, aldiz, ikasgai bakoitzeko irakasle bat izaten da, gai horretan aditua dena. Era berean, irakasle batzuk denbora guztian haurtalde berarekin egoten dira ikasgai anitz emanez, eta beste batzuk gai bera irakasten dute hainbat taldetan.

Batzuen zein besteen lana desberdina den heinean, prestakuntza ere haldala da.

Hegoaldean Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra izateko irakasle ikasketak egin behar dira. Hainbat espezialitate daude aukeran, guztiak hiru urteko diplomaturak direlarik. Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko, aldiz, lizentziatura eskatzen da, eta horrekin batera Irakaskuntzarako Egoitze Ikastaroa egina izatea.

Iparraldean, ostera, abiapuntua ez-

berdina da. Lehen nahiz Bigarren Mailako irakasle izateko hasieran edozein motatako unibertsitate ikasketak egiten dira; hau da, Psikologia, Filologia, Fisika, Bilologia... edozein. Hiru urteko ikasketak izan ohi dira eta oinarrizko diploma orokorra eskuratzen da horiekin. Titulu horrekin hainbat adar profesionaletara bidera daiteke, eta horietako bat irakaskuntza izan daiteke. Kasu horretan, irakasle izateko, bereziki horretarako diren bi urteko ikasketak egin behar dira; Lehen Mailako irakasle izan nahi dutenek ikasketa mota batzuk egiten dituzte, eta Bigarren Mailara bideratu nahi dutenek beste batzuk. Aurrenekoen kasuan, ikasketa horietan didaktika eta pedagogia gaiak lantzen dira eta Hezkuntza Ministeritzak ematen duen *Professeur des écoles* diploma profesionala eskuratzen da. Bigarren goen kasuan, bi urteko ikasketa horiek bakoitzaren gaiari lotuta daude eta bukatu ostean CAER edo CAPES titulua jasotzen da.



# G



### Kolegio eta lizeotako irakasleen prestakuntza

Orain arte esandakoari jarraituz, Iparraldean hiru urteko oinarrizko diploma bat duen edonor izan daiteke irakasle, baldin eta beste bi urteko ikasketa bereziak egiten baditu. Horrela, Bigarren Mailako irakasle izateko CAPES formazioa egin behar da. Formazio hori estatu mailako da eta Bordelen egiten da. Diplomatuak hango unibertsitatean eskolak jasotzen dituzte urtebetean eta ondoren azterketa egiten dute. Sare publikoko irakasleak egiten duten azterketari CAPES deitzen zaio eta sare pribatukoek egiten dutenari CAFEP. Izen desberdina ukan arren, edukiz berdinak dira. Urtebete horretan jasotzen diren eskolak gaika antolatuta daude, hau da, urtebetean Filologiako diplomatuak Filologiako CAPESA edo CAFEPa prestatzen dute, Historiakoei Historiako CAPESA edo CAFEPa, Kimikakoei Kimikako CAPESA edo CAFEPa eta abar. Guztietan pedagogia arloko prestakuntza eskaintzen da eta dena frantsesez.

Azterketa gainditu ondoren, bigarren ikasturtean, denboraren erdian unibertsitatean eskolak jasotzen jarraitzen dute eta beste erdian praktikak egiten dituzte eskoletan. Bigarren ikasturtearen amaieran eskolako jardun

hori ikuskari batek begiratzen du, eta berak erabakitzen du pertsona hori irakasle izateko gai den edo ez.

Prozesu horri guztiari kanpoko CAPESA edo CAFEPa deitzen zaio. Izan ere, azterketa hori egiten dutenak oraindik irakaskuntzan ari ez diren lizentziatuak dira.

Badira, ordea, titulu hori eduki ez arren ordezkotza bezala lanean aritzen direnak. Horiek beste azterketa bat egin dezakete Bigarren Hezkuntzako irakasle titulua lortzeko. Barneko azterketa edo CAER deitzen zaio aukera horri. Gutxienez hiru urte lanean aritu ondoren egiten da azterketa hori.

### Seaskak beste bide bat eskaintzen du

Seaskak barneko prozesua jarraitzen du, hau da, azterketa egin aurretik hasten dira diplomatuak Seaskan lanean, eta aldi berean, bi urteko prestakuntza pedagogikoa jasotzen dute. Ondoren, beste urtebete irakaskuntzan aritu ondoren, CAER azterketa pasatzen dute.

Ikastolan lanean hasi aurretik eta ikastaroa abiatu baino lehen guztiekin elkarriketa bat egiten zaie beren gaitasuna neurtzeko bai pedagogian arloan eta bai euskara arloan. Jaki Elkano Seaskako pedagogia prestatzailea da

haien prestakuntzaren arduradaramana. *“Diplomatu horiek beren gaiak badakite, baina pedagogiaz eta didaktikaz ez, ez baitute formazio pedagogikorik ukan. Gehienek trebatu egin behar dute”* dio Jaki Elkanok. *“Beraz, ki-deekin eta ahal duten moduan hasten dira ikasturtea prestatzen. Baina gero, gelan direlarik, bakarrik dira eta hor egiten da zinez ekintza pedagogikoa. Batzuek berez sentitzen dute gela nola kudeatu, baina beste batzuek ez dakite. Eta hor laguntza behar dute”*.

Laguntza hori lehen ikasturtean formazio teorikoa emanez hasten da eta didaktika orokorra irakasten zaie asteazken arratsaldetan. Horrez gain, Jaki Elkanok urtean sei bisita egiten dituzte gelara, nola moldatzen diren ikusteko. Lanaren analisia egiten dute elkarrekin, teoria eta praktika ahal bezainbat lotzeko. *“Ez dut ikuskari lana egiten, formatzailearena baizik, aholkulari bisi-tak egiten ditut eta beraiek laguntzeko eta gogoetak, analisiak eta ikerketa egiteko nagoela sentitu behar dute. Nire lana aholkuak ematea da, gauza sinpleak baina beharrezkoak. Adibidez, kontsigna bat eman aurretik ikasle guztiak berari so daudela ziurtatzea, aktibitateak anitz aldizkatzea, denbora kudeatzen jakitea eta abar”*.

Era berean, irakasle berri horiek tutore bat izaten dute, lankide bat izan ohi dena, eta horrek ere parte hartzen du prestakuntzan lagunduz. Ikasturtearen amaieran ebaluaketa bat egiten dute Elkanok eta ikastolako zuzendariak eta baikorra bada, hurrengo ikasturtean prestakuntzarekin jarraitzen da.

Bigarren urtean asteazken arratsaldetako saioekin jarraitzen dute eta euskara arloa jorratzen dute bereziki: euskal zibilizazioa, hizkuntza, linguistika, euskal literatura, erakundeak... Ikasturtearen amaieran memoria bat egin behar izaten dute eta bukaeran epaimahai baten aitzinean aurkeztu.

Ibilbide hori guztia egin ondoren, beste urtebetez jarraitu behar dute eskolak ematen eta orduan egin dezakete CAER azterketa.

Hezkuntza Ministeritzaren Borde-



# G A I A

## Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

G

leko prestakuntzaren eta Seaskaren formakuntzaren arteko desberdintasuna hizkuntzan dago, bereziki; Bordelekoa frantsesez da, eta Seaskakoa euskaraz. *“Guretzat hori garrantzitsua da”* dio Elkanok. *“Pedagogia formazioa emateaz gain, Seaskaren eskola proiektuaren berri ematen diegu guk. Proiektu horren helburuak lortzeko behar ditugu irakasleak eta izpiritu hori erakutsi behar diegu”*.

### EAEn eta Nafarroako lizentziatuak

Iparraldeko egoerarekin alderatuta, EAEn eta Nafarroan beste bide bat jarraitzen dute irakasle gaiak.

Lehen Hezkuntzako maisu-maistrek irakaskuntzan aritzeko ikasketak egiten dituzte, horretarako prestatzen dira. Lizentziatuak, ordea, ez dute arlo pedagogikoari eta didaktikoari buruz bereziki ezer ikasten, ez dute irakasle izateko ikasten, ikasketak ez daude horretara bideratuta.

Nolanahi ere, hezkuntza sistemak lizentziatuak eskatzen ditu Bigarren Hezkuntzako ikasleei irakats diezaien. Gaiari adituak diren pertsonak eskatzen ditu: fisikoak, filologoak, biologoak, ingeniariak eta abar. Lizentziatu bakoitzak bere gaiari dagokion prestakuntza jaso du, baina eskolak emateko prestatua al dago?

Hor dago gakoak. Gauza bat gaiaz jakitea da, eta beste bat irakastea eta hezte. Lehen Hezkuntzako irakasleek, beste gauzen artean, hiru urte pasatzen dituzte nola irakatsi eta hezi ikasten. Li-



zentsiatuek ez al dute horren beharrik?

Erantzuna baiezkoa da, eta horregatik lizentziatuei Irakaskuntzarako Egokitze Ikastaroa (IEI, gaztelaniaz CAP) egitea eta titulua edukitzea eskatzen zaie eskolak eman ahal izateko. Irakasle izateko prestatzen dira ikastarorietan.

Hori egin ondoren jasotzen den titulua hezkuntza administrazioak ematen duen titulu bat da, profesionalizatzeko balio duena, baina ez da unibertsitateko tituluzioa.

Titulu hori Madrilgo Gobernuoko dekretu batek arautu arren, erkidego autonomo bakoitzak modu diferentean antolatzen du eta unibertsitateak arduratzen dira ikastaroa emateaz. Zenbait unibertsitateetan bi edo hiru asteburutan egin daiteke, beste batzuetan hamar hilabetetan, zenbaitetan klaseko asistentzia derrigorrezkoa da eta beste batzuetan korrespondentzia bidez egiten da. Prezio aldetik ere, zenbat eta laburragoa izan, orduan eta garestiagoa suertatzen da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan bost hilabete irauten du ikastaroak eta Euskal Herriko Unibertsitatean sei hilabetekoa da. Antolaketa aldetik, bietan antzekoa da. Hasteko, ikastaro teoriko orokorra egiten da, ikasle guztien

tzat berdina delarik eta oinarriko lau modulu teoriko lantzen direlarik: hezkuntzaren antolaketa eta orientazioa, bilakaeraren eta hezkuntzaren psikologia, Bigarren Hezkuntzaren soziologia, eta hezkuntza ikerketa eta komunikazio eta informazio teknologia berriak. Ondoren, ikasle bakoitzak bere espezialitateari lotutako didaktika zehatza hautatzen du, eta beste gauzen artean, unitate didaktiko bat egiten du.

Zati teoriko hori amaitu ostean praktikak egiten dira Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean tutore baten gidaritzapean, eta aurretik egindako unitate didaktiko hori eramaten da aurrera. EHUan praktiketan dauden bitartean ere ordu batzuetan eskolak ematen dira behaketa eta hausnarketa egiteko, zentroaren funtzionamendua eta antolaketa ezagutzeko, eskolak nola prestatu jakiteko... Amaieran ikasle bakoitzak memoria bat egin eta aurkeztu behar du, horrekin klaseak emateko gaitasun pedagogikoaren titulua eskuratzeko duelarik.

Didaktika zehatzei dagokienez, eskaintza ez da berdina campus guztietan eta urtero aldatu egiten da. Eskariaren edo beharren arabera administrazioak erabakitzen du zein espezialitate eskaini. Hau da, hurrengo urteetan zein es-



pezialitateko irakasleak beharko dituen aurreikusten du, eta horren arabera zehazten da eskaintza, eta baita plaza kopurua ere. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurtan 300 plaza eskaini ditu eta 114 matrikulatu dira. Nafarroan 100 plaza eskaini dira eta horietatik bete dira. Orain dela hiru urte hasi ziren Nafarroan ikastaro honekin eta hiru urtean plaza kopuru bera eskaini da. Lehenengo urtean eskaria askoz ere handiagoa izan zen, baina aurtan eskaintzaren parekoa izan da. EAEn, berriz, 96-97 ikasturtean hasi ziren IEIekin eta 496 ikasle eman zuten izena. Urtez urte kopurua jaitsiz joan da eta aurtan 114 ari dira ikastaroa egiten. Nahiz eta 300eko *numerus clausus* jarri, ez da hainbeste jende matrikulatzen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurtan lau didaktika zehatz eskaini dira: Ekonomia eta Administrazioa, Teknologia eta Lanbide Heziketa Industrial, Teknologia eta Zerbitzueta Lanbide Heziketa eta Natur Zientziak. Iaz aukeran zeuden Musika, Historia eta Filologia ez dira eskaini aurtan. Printzipioz denak gaztelaniaz daude. Nolanahi ere, praktikak euskaraz egin ahal dira, baldin eta euskarazko ikastetxea eta tutorea aurkitzen baditu norberak.

Euskal Herriko Unibertsitatean espezialitateak hiru campusetan eta Durangon banatuta daude. Hurrengo taulan ikus daiteke campus bakoitzean aukeran dauden espezialitateak zein diren. Hala ere, ez da ahaztu behar, Nafarroan bezala, urteroko eskaintza aldatu egiten dela eta beti ez direla guztiak aukeran egoten.



# G

# G A I A

## Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza



### Aldaketak datoz

LOGSEren ezarpenarekin derri-gorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatu zen, eta horrek irakasleen aldetik beste prestakuntza bat eskatzen zuen. Hori dela eta, 1995an diseinatutako IEI aldatzeko beharra ikusi zen. Gerotik hainbat proposamen eta zirriborro egin dira, eta dekretua ere zehaztuta dago, baina oraindik ez da martxan jarri. Hala ere, EAEn dagoeneko plan berria aurreikusten diren aldaketak egin dira IEIren barruan.

Dekretu berriak ekarriko dituen aldaketen artean izena berarena dago: Prestakuntza Pedagogikorako I-kastaroa (Curso de Cualificación Pedagógica) deituko zaio. Didaktika zehatzei dagokienez, 19 espezialitate sortzea aurreikusten da, nahiz eta ez den zehazten urte batean guztiak eskainiko diren edota aurreikusten diren lanpostuen arabera erabakiko diren.

Berrikuntza nabarmen bat ikastaroa hasteko baldintza izango da. Hots, orain arte lizentziatura bukatu ostean egin izan da IEI, eta eredu berria unibertsitate ikasketak egin bitartean hasteko aukera egonen da. Ikasketako kredituen %60 egin ondoren ekiteko parada izanen da. Zentzu horretan, ikastaro honetako edukiak hautazko edo libre modura txertatuko dira ikasketetan.

Ikasketa planetan sartzeak bada-ker beste aldaketa bat ere. Orain arte unibertsitateko irakasleek ematen zizuten IEIko eskolak borondatez, baina ikasketa planetan sartzen badira departamentuen ardurapena geldituko dira. Beraz, zenbait irakaslek horren ardura hartu eta prestatu egin beharko dute.



### Araban:

- Gizarte Zientziak berezitasuna: Geografia, Historia, Kazetaritza, Zuzenbidea eta Soziologia. Euskaraz.
- Atzerriko Hizkuntzak berezitasuna: Filologiak eta Itzulpen-gintza eta Intepretaritza. Gaztelaniaz.

### Bizkaian:

- Zientziak berezitasuna: Matematika, Enpresa ikasketak, Ekonomia, Biokimika, Kimika eta Fisika. Gaztelaniaz.
- Natur Zientziak berezitasuna: Medikuntza, Biologia, Geologia, Farmazia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia eta Nekazaritza Ingeniaritza. Euskaraz.
- Arte Ederrak berezitasuna. Gaztelaniaz.

### Gipuzkoan:

- Giza Zientziak berezitasuna: Filosofia, Antropologia, Psikologia eta Psikopedagogia. Euskaraz.
- Zientziak berezitasuna: Matematika, Enpresa ikasketak, Ekonomia, Biokimika, Kimika eta Fisika. Euskaraz.

### Durangoan:

- Teknologia berezitasuna: Ingeniaritza, Informatika eta Arkitektura. Gaztelaniaz.

# Alfredo Goñi

## Hezkuntzaren Zientzien Institutuko zuzendaria

Euskal Herriko Unibertsitatearen barnean Hezkuntzaren Zientzien Institutua da IEIren ardura eta antolaketa daramana. Ikasturte honetan hartu du bertako zuzendaritzako kargua Alfredo Goñik.

### Zure ustez nahikoa al da IEIrekin jasotzen den ezagutza irakasle izateko?

Ez, eta benetan kezkatzekoa den gertakari bat da. Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasketa bereziak daude, hiru urteko diplomatura egin behar da, eta batzuk bost urteko lizentziatura bihurtzeko eskatzen dute. Paradoxikoki, Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko bideak azkarragoak dira. Horregatik, mundu guztiak prestakuntza hori nahikoa ez delako sentiazioa dauka, eta argi eta garbi dago irakasle ikasketak egin dituztenen eta ikastaro hori egin dutenen sentsibiltatea ere ez dela nahikoa.

Ni urte askotan izan naiz Irakasle Eskolako irakasle eta horko prestakuntza oso ona ez delako sentiazioa daukat. Baina, ikasketa horiek egin eta irakasle izateko prestatu den pertsona baten pentsaera eta sentsibiltatea, eta horretarako prestatu ez den eta bere gaien espezialista den pertsona batena alderatzen baditugu, dife-



rentzia nabarmenak daudela ohar-tuko gara.

### Zein diferentzia ikusten dituzu?

Benetako hezitzaileak badaki bere egitekoa ez dela irakastea, baizik eta ikasten laguntzea. Hau da, Ikerri Matematikak irakasteko

Matematikak jakin behar dira, baina baita Iker ezagutu ere, ezagutza hori gabe ezinezkoa da Ikerreri irakastea. Zalantzarik gabe, bigarren alderdi hori derrigorrezkoa da, hots; ezagutza psikologiko eta pedagogikoa, etapa baikotzeko ikaskuntzaren ezaugarriak, motibazioa eta abar.



### **Prestakuntza Pedagogikorako Ikastaro berriak arazo horiei irtenbidea emango al die?**

Nik uste dut gauzak aldatuko dituela. Esate baterako, irakaskuntzaren testuinguruan gehiago integratzen da, petatxu sentazioa kenduz. Nik uste dut lasaiago eta denbora gehiagorekin egin daitekeela, eta hezkuntzan interesa edo bokazioa duenak hobeto egin dezakeela.

Horrez gain, autonomia erkidegoen artean dagoen diskriminazio egoera ere ezabatu egingo du.

### **Nola uler daiteke leku batean sei hilabetetan lortzea titulua eta beste batean hiru asteburutan?**

Arautu gabe dagoelako gertatzen da hori, eta noski, ikasleak harrituta gelditzen dira. Alde batetik, badakite hemen beste zenbait lekutan baino prestakuntza hobea jasotzen dutela, baina bestetik hainbatek titulu berdina askoz ere denbora gutxiagon eskuratzen duela ikusten dute. Hala ere, tituluaren zenbat ordu egin diren zehazten da eta horrek balioa ematen dio eta aintzat hartzen da.

Dena dela, plangintza berriarekin hori guztia arautu egingo da eta denak berdindu egingo dira.

**Eredu berriarekin jende gehiago matrikulatuko dela uste al duzu?**

Nik baietz uste dut. Zeren prestakuntza hori egiten dutenak ez dira irakaskuntza formaleko irakasleak soilik. Irakaskuntza ez formalean dabilen gero eta jende gehiagok egiten du ikastaro hori, arlo horietan heziketa hausnarketa egitea garrantzitsutzat jotzen delako. Besteak beste, helduen hezkuntzan, aisialdian, internet bidezko hezkuntzan, gazteen heziketan eta abarrean dabilzanak dira etortzen direnak. Modu horretako lanetan jardun nahi duenak unibertsitateak aitortzen duen Prestakuntza Pedagogikorako ziurtagiria badarama, berme batekin doa edo behintzat zenbait orduetan horretaz hausnartu duenaren seinale da.

**“Benetako hezitzaileak badaki bere egitekoa ez dela irakastea, baizik eta ikasten laguntzea. Horregatik, gaia ezagutu behar da, baina ikasleak ere bai, hori gabe ez dago irakaskuntzarik”**



**G A I A**  
Bigarren Hezkuntzako  
irakasleen prestakuntza

**G**

# Uri Ruiz Bikandi

Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea eta *Textos*  
aldizkariko zuzendaritza taldeko partaidea



Orain arte ahozkotasuna lantzeari ez  
zaio garrantzirik eman, denbora galtzea  
zela pentsatuz, eta uste hori aldatu egin  
behar da.





# Uri Ruiz Bikandi



Haurrak  
berez ikasten  
duelako ustea oso  
zabaldua dago.  
Irakasle askok  
pentsatzen du  
haurrak eskolan  
sartu, berak  
euskaraz egin eta  
belarritik sartzen  
zaionarekin ikasten  
duela euskara.  
Eta hori ez da  
horrela

Aspaldian murgildu zen irakaskuntza munduan jaiotzez durangarra den emakume hau. 1970ean Turretako ikastolako andere o izan zen, eta urtebete jardun zuen han, ikastola itxi zioten arte. Hurrengo bi urteetan geroago Bizkaiko Ikastolen Elkarteak izango zeneko koordinatzaile izan zen eta gero Elorriko ikastolara joan zen. 1979an Legutioko eskola publikoan hasi zen A ereduiko ikasleekin.

Urtebete beranduago materialgintzan murgildu zen Hegaz eta Kalakari taldeetako gainerako kideekin batera. Euskarazko irakaskuntzarako materiala prestatzea eta irakasleen prestakuntzan aritzea izan zen talde horien zeregin.

Egun Bilboko Irakasle Eskolan ematen ditu eskolak eta *Textos* aldizkariko zuzendaritza taldeko partaidea da.

Horrez gain, ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabetasunaren prozesuak aztertzen eta lantzen jarraitzen du Uri Ruiz Bikandik. Momentu honetan, orain arte jorrotutakoaren balorazioa eginez eta aurrera begira jarritz, ahozko-tasuna lantzearen garrantziaz erabat jabetuta dago. Proposamen horren garrantziaz eta xehetasunez mintzatu gara berarekin.

**Nolakoa izan ohi da ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren arteko harremana?**

Bi hizkuntzak sozialki babestuak, instituzio sendo asko dituztenak, historian zehar idatzi ugari ekoiztu dutenak eta hiztun askokoak badira, hizkuntza horietako hiztunek ez dute arazorik izaten bigarren hizkuntza ikasteko. Zeren eskolan ikasten duten bigarren hizkuntza horrek ez baitie beren izaera eta nortasun kulturalari erasotzen. Adibidez, Kanadan frantsesa irakatsi diete ingelesez mintzatzen zirenei. Baina ez du ondorio bera izan indiar hizkuntzetako hiztunei edota sasoi batean minorizatu-ta zegoen frantsesez mintzatzen zirenei ingelesa irakasteak.

**Zer gertatzen da, ordea, ama hizkuntza edo lehen hizkuntza gutxitua denean?**

Kasu horretan, hizkuntza gutxituak ez du horrenbesteko babes sozialik izaten, edo batere ez. Hiztun horiei eskolan beste hizkuntza bat egiteak normalean beren identitatearen ezabaketa edo gutxiezpina ekartzen die.

Egoera horietan lehenengo ama hizkuntza indartu behar da, eta behin ama hizkuntzaren prestigioa edo itzala segurtatuta, bigarren hizkuntza, eta hirugarrena eta laugarrena irakasten has daitezke eskolan.

**Zer eragin du norbanakoarengan hizkuntza nagusiaren eta hizkuntza gutxituaren arteko desorekak?**

Bi hizkuntza jakiteak, elebidun izateak, bi kulturetan parte hartzea ahalbidetzen du. Hori gauza ona da, eta baita lau kulturatan parte hartzea ere, baina ez da beti erraza izaten, tirabirak sortzen baitira kulturen artean eta norberak ere kausitzen baititu tirabira horiek.

Hau da, norberak dakizkien hizkuntza biak buru bakar batean daude eta elkarri laguntzen diote, neurri handi batean. Baina baita inoiz elkarri oztopo egin ere.

Hizkuntza asko jakitea positiboa da baten gainean bestea sartzen delako. Lehen hizkuntza ondo ezarrita dagoe-



nean, hots, ama hizkuntzak garatzeko posibilitateak dituenen, bigarren hizkuntza nolabait haren itzalpean hazten da, hizkuntza hartan ikasitako mekanismoak, estrategiak eta esapideak erabiltzen dira bigarren hizkuntza ikasterakoan. Lehen hizkuntzaren zigilua hartzen du bigarrenak bere espazioa hartu arte, bere profil eta mugak argitu arte.

Azken finean, buru bakarra daukagu, eta buru bera da hizkuntza biak maneiatzen dituen. Alde horretatik bigarren hizkuntza ikasteak gure jakituria elikatzen du. Haatik, elikadura hori ez da digestio arazorik gabe egiten.

### **Bigarren hizkuntza ama hizkuntzaren mailara hel al daiteke?**

Ama hizkuntza egoteak ez du esan nahi beti lehenbizikoa, garrantzitsuena eta funtsekoena izango denik bizitza osoan. Badago Adam Ouane-ek gidatutako eta Unescok argitaratutako munduko hizkuntzen inguruko liburu bat. Bertan azaltzen dena gogoratu, hainbat kulturatan ama hizkuntza oinarriko hizkuntza izanik ere, gerora jendeak aldatu egiten du, eta beste hizkuntza bat garrantzitsuagoa eta erabiliagoa bihurtzen da. Gaur egun guri ere gertatzen zaigu hori; zenbait arlotan hizkuntza bat da gehien eta ondoen erabiltzen duguna, eta beste arlo batzuetan beste hizkuntza batean erosoago sentitzen gara.

Dena dela, berriz galderari helduz, hizkuntzaren estatusak garrantzi handia dauka bietan maila bera lortzearekin. Estatus horretan hainbat elementu soziopolitikoak dira, hots, neurri politikoekin konpon daitezkeenak. Beste

batzuk hiztunen borondatez konpon daitezkeenak dira. Eta konponezinak direnak ere badaude. Hau da, ez da gauza bera 600.000 hiztun edo 600 milioi hiztun izatea, iturriak eta ezaugarriak desberdinak baitira.

Euskal Herriko herri askotan gaztelania edo frantsesa da kaleko hizkera eta erraz menderatzen dute hiztunek. Leku gehienetan hori ez da posible euskararen kasuan. Oso zaila da Barakaldo, Gasteiz edo Laudioko haurrek euskaraz erdaraz hitz egiten duten bezala hitz egitea. Zeren hizkuntzak jatorrizko hiztunekin harremanetan egonez ikasten baitira. Beno, ez horrekin soilik, baina hori da nolabait eskolak egin dezakeenari gehien laguntzen dion faktorea.

### **Orduan, bien arteko oreka ez da posible?**

Hori desira da, baina oreka ez da existitzen, eta sozialki ere ez, hizkuntza bat bestearekin borrokatuko baita bere esparrua lortzeko. Euskararen kasuan, erraldoiekin jokatzeko ari gara. Guk erraldoiari buelta eman behar diogu. Baina ezingo gara sekula erraldoiak izan, ez baikara hain handi. Edonola ere, gure txikitasun horretan gurea mantentzea, hobetzea eta gureari esparruak bilatzea da gakoia.

### **Zein esparru aurkitu dizkiogu orain arte?**

Ni 1970ean hasi nintzen lehenbizikoko ikastoletan eta ordutik hona gauza asko aldatu dira. Gu hasi ginenean ez zegoen ez libururik, ez ezertxo ere. Geukegiten genituen liburuak haurrek euskaraz irakurtzen ikas zezaten. Nik urte askotan jardun dut ikastolan erdarazko liburuetatik irakurri eta euskaraz lanak egiten. Itzulpena izan zen oinarria hasierako sasoi hartako irakaskuntzan, besterik ez baitzegoen.

Euskarazko irakaskuntza gauza arraroa zen, ez debekatua soilik. Lehenengo ikastola oholez itxi zidaten. Bigarren urte askotan legeztatu gabe lan egin genuen, hurrengo hilean soldata irabaziko genuen edo ez jakin gabe. Geroztik euskara duintasun maila



lortuz joan da eta maila sozialean ere aurrerapausoak eman dira. Oso urte gutxitan egin dugu beste batzuek urte luzeetan egindakoa, baina hala ere ahuleziak baditugu. Gure hizkuntza oso ahula da, oso ahula, eta egunero borrokatu behar dugu.

Egin duguna hobetu dezakegu, du-darik gabe, eta horretarako badaude zenbait jokabide. Nik uste dut gogoek, ezagutzak eta jokabideak eragin handia izan dutela gure praktika pedagogikoan. Orain gauza gehiago dakizkigu eta gauzak hobetu daitezke.

### **Zein izan dira orain arteko usteak eta jokabideak pedagogia jardun orokorrean?**

Freinet, Neill eta Europako korrante progresisten eragin handia jaso genuen 70eko hamarkadaren inguruan. Konstruktibismoa zabaltzen hasia zen, eta horien eraginez esperantza handia geneukan haurrek berezko duen sortzeko gaitasunean, berezko senean. Eskola aktiboa egiten hasi ginen, baina uste genuen haurra hazten zen heinean gai izango zela gauzak hartzeko. Eskolak bere hazkunderari itxaron egin behar ziola pentsatzen genuen.

Gaur egun beste korrante batzuk dauzkagu: hasierako konstruktibismoari pare bat buelta eman zaizkio eta korrante soziokulturala (Vigotski) lotu

Elkarren  
artean solasean  
jarduten  
badakigu;  
ez dakiguna da  
azalpen publiko  
luze eta sendo  
bat egiten, ideiak  
agertzen  
Eta hori da  
eskolak irakatsi  
behar duena  
hizkuntza bietan,  
ama hizkuntzan  
zein bigarren  
hizkuntzan

zaio. Eskola Aktiboaren printzipio berei jarraitu, baina haurren garapen mailari aurreratu behar zaiola pentsatzen da, garapena gerta dadin lagundu behar diogula.

**Pedagogia orokorretik bigarren hizkuntzaren pedagogiara jaitsiz, zein izan dira arlo horretan eduki ditugun usteak?**

Guk lehen ikastoletan euskararik ez zekiten haurrak izaten genituen, eta euskara balekitez bezala jokatzen genuen beraiekin. Alegia, pixka bat astiroago hitz egin, inoiz itzulpena eman, eta tira. Orain hori gogoratzeak lotsa pixka bat ematen dit.

Nik uste dut haurrak berez ikasten duelako ustea oso zabaldua dagoela. askok pentsatzen du haurrak eskolan sartu, berak euskaraz egin eta belarritik sartzen zaionarekin ikasten duela euskara. Eta hori ez da horrela. Modu horretara zerbait ikasten dute, baina hori ez da ikas dezaketen guztia. Beste modu batera askoz ere gehiago ikasiko lukete.

**Uste hori gainditu al da?**

Eskola publikoetan euskaraz sartzen hasi ginenean bigarren hizkuntza ikasteko zer egin planteatzen hasi ginen. Bazegoen tradizio bat, hau da, frantseza irakasten zen modura irakastea, itzulpenekin eta gramatikarekin. Ba-

zen baita ere errepikapenaren bidez egiten zena. Baina guk bagenekien hori ez zela bidea.

Guk bagenekien zerbait hurbilketa komunikatiboaz, bagenekien komunikazioa funtsezkoa zela. Baina ideia ez geneukan oso argi. Horregatik, gramatikak ardatza izaten jarraitzen zuen, eta nahiz eta haurrentzako gauza interesgarriak egiten saiatu, zentzu gabeko errepikapenetan denbora asko pasatzen genuen.

Hori A ereduan eta euskara ereduetan, bietan gertatzen zen. Haurrak aspertu egiten ziren gramatika liburu haiekin eta Hizkuntza ikasgaia gauza astuna zen oso. Mintzatzeari ez zitzaion garrantzirik ematen, oso gutxi. Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan bai, hots, A eta B ereduetan. Izan ere, hasieratik mintzatzen ez zekien bati lagundu egin behar zitzaion, baina etxetik zekitenekin idatzia eta gramatika ziren garrantzitsuak. Baina, hala ere, pedagogikoki eta metodologikoki ez genuen baxteregia.

**Zer ulertzen zenuten komunikazioa kontzeptuarekin?**

Komunikazioaren inguruan interpretazio ugari egon dira. Oso kontzeptu emankorra izan da. Bere eragina gerotxoago izan genuen. Errazena eta merkeena honakoa da: elkarren artean komunikatzen gara, hemen gauza ko-





munikatzetza da, onena elkar ulertzea da. Haurrak mintza daitezela. Hori zen helburua.

Komunikazioaren ideia hori batekotasunean oinarritzen da. Bat-bateko ikuspegia geneukan, berezkoa den horrena. Komunikatzea ateratzen zena onartzea zen. Haurrak gaizki egiten bazuen ez zitzaien gehiegi zuzendu behar, bestela moztu egingo baitzen eta ez baitzuen hitz egingo. Eta garrantzitsuena mintzatzea zen. Horrek, ordea, arazo asko dakartza ondoren.

### **Orain ere interpretazio horrekin gelditzen al zara?**

Ez, ez naiz interpretazio errazenarekin gelditzen. Haratago joanez, beste galdera bat egiten dut: mintzatu bai, baina nola? Mintzatzea edo komunikatzea ez da edozer gauza eta edozein modutara esatea. Formari ere garrantzia eman behar zaio. Horregatik, gaur egun hurbilketa komunikatiboaren ikuspegitik ere hausnarketa formala funtsezkoa da.

### **Zer esan nahi duzu hausnarketa formala diozunean?**

Bada, hizkuntza formalean "zera, zeratu, zeratzen" esateak ez du balio, gauza bakoitzari bere izena eman behar zaio, gauzak ondo adierazten jakin behar da. Horregatik, hitz egiteko moduari edo formari ere kasu egin behar zaio.

Haurrek txikitari formari ez diote erreparatzen, zenbait elementu ia modu ez kontzientean jasotzen dituzte. Geroago dator formaren inguruko hausnarketa egitea, eta hori egitea fun-

tsezkoa da ondo mintzatzeko. Esaten dugunaren formaren kontzientziarik ez badugu, automatizatua soilik baldin badaukagu, sekula ez dugu ondo hitz egingo ezta ondo idatziko ere. Izan ere, idazteko hitzen jabe izan behar dugu, esaten dugunaren kontrola eduki behar dugu.

### **Hizkuntzaren alderdi komunikatiboaz ari garelarik, egindako ikerketek baieztatu dute murgiltze programa gehienetan ikasleek ahozko hizkuntza oso eskasa dutela, eta nola edo hala komunikatzen direla. Zer diozu zuk?**

Egia da. Gure arbasoak orduak eta orduak egoten ziren elkarrekin hitz egiten. Guk ere hitz egiten dugu, baina eurak istorioak kontatzen zizkioten elkarri. Eta hori oso garrantzitsua da. Azkenean, bizitza elkarri istorioak kontatzen pasatzen dugu, baina normalean lagunei kontatzen dizkiegunez, gauza asko ez dizkiegu esaten jakinak direlako: zeakin egon nintzen... Baina istorioak, pasadizoak, ipuinak... zabal kontatzea funtsezkoa da diskurtsoa eraikitzen ikasteko. Hori da ez dakiguna. Elkarren artean solasean jarduten badakigu; ez dakiguna da azalpen publiko luze eta sendo bat egiten, ideiak agertzen... Gure ikasleek adierazpide eskasa dute, ez diragai izaten ideiak behar den moduan garatzeko. Eta hori da eskolak irakatsi behar duena hizkuntza bietan, ama hizkuntzan zein bigarren hizkuntzan.

### **Orain arte ez da sekula behar den moduan landu. Gure pedagogia edo didaktika moduek erro sendoa daukate lehen hizkuntzako irakaskuntzan, eta hor ahozkoari ez zaio garrantzirik eman izan.**

Komunikazioak kontrol kontzientea behar du, eta hori falta da. Orain arte hizkuntza idatziaren gainean baino ez da egin. Gutxi landu da ahozkoan, eta hori ere landu behar da. Bestela, behin eta berriro gaizki mintzaten bagara eta inork zuzentzen ez badigu, barneratu eta akatsak automatizatu egi-



ten ditugu. Eta ondoren desautomatizatzea oso zaila da. Horregatik, hainbat ikaslek euskaraz akats batzuk egiten dituzte, eta gainera kendu ezinezkoak bihurtzen dira. Adibidez: -la eta -na, erlatibozkoa eta kompletiboa ez dituzte bereizten gaztelaniaz bietarako "que" erabiltzen delako; ergatiboaren -k ez dute jartzen; ordena sintaktikoak gaizki egiten dituzte...

### **Hori zergatik gertatzen da? Horren inguruan behar besteko lanik egin ez delako.**

Nik uste dut ahozkoari garrantzia eman behar zaiola eta ondo programatu behar dela. Minimoki programatu behar da, buruan oso argi izan behar dugu egun osoa hitz eginez pasatzen dutela ikasleek. Mekanismoak ikasi behar ditugu komunikazio eta hizkuntza hori gero eta hobea izan dadin.

### **Zure ustez, zein mekanismo erabili beharko lirake ahozkoasuna lantzeko? Nondik hasi beharko genuke?**

Lehendabizi faltsukeria bat alboratu behar da, hau da, ikasleak irakasleak esaten duenarekin gelditzen direlako ustea. Hori ez da horrela, entzuten duten guztiarekin ez baitira gelditzen. Eta gainera, adi ez baldin badaude, ez dute entzun ere egiten edo ez dute arretarik jartzen. Adi gonda ere, sartzen den

Uti

Ruiz Bikandi

E

Etorkinei euskarazko ereduak eskaini behar dizkiegu, nahiz eta erdara ere ikasi beharko duten. Izugarritzko lana da bi hizkuntzak zerotik irakastea eta ikastea. Horregatik, daukagun dema ez da tontakeria. Nik uste dut ideia zabalekin eta irudimenez jokatu behar dugula, eta ez ideia itxi eta zurruneekin

guztia ez da gelditzen. Normalean ideia gelditzen zaigu, eta ez hitz kateamendu osoa. Badirudi buruak hitz kateamendu horretako elementu batzuk isolatu, harrapatu eta gorde egiten dituela, baina ez beti guk uste ditugunak edo guk nahiko genituzkeenak.

Kontuan hartu behar den bigarren gauza da ahozkotasuna lantzeko egiten dudan planteamenduak bi hizkuntzatarako balio duela, bai ama hizkuntzatarako eta bai bigarren hizkuntzatarako.

#### **Abiapuntu hori aintzat harturik, zer proposamen egiten duzu?**

Nik egiten dudan proposamenak hainbat konbinaketa ditu. Gauza garrantzitsu bat irakaslearen estrategiak zorroztea da, haurrei mintzarazteko estrategiak hain zuzen ere. Oso garrantzitsua da haurrek esaten dutena baino haratago joaten ikastea, edozein modutan esaten dutena ez onartzea eta hobetzen laguntzea. Gure laguntzarik gabe honaino esateko gai badira, gure laguntzarekin hurrengo pausoa emango dute. Horretarako, estrategia batzuk izan behar ditu irakasleak.

#### **Zein estrategia?**

Akatsak zuzentzeko estrategiak, mintzarazteko estrategiak eta formari



garrantzia emateko estrategiak dira nagusienak. Horrekin batera, gutxieneko programazio bat behar da txiki-txikitik era guztietako diskurtso motak garatzeko. Esate baterako, eguneroko bizi-tzako kontakizunak egitea, elkarrekin bizi izandakoa gogoratzea, azalpenak ematea, proiektuak agertzea, etorkizunari edo gertatu ez denari buruz hitz egitea, posible denaz mintzatzea, hipotetikoa denaz jardutea...

Oinarrizko diskurtso mota horietan irakasleak plan argia eduki behar du buruan. Era horretako diskurtsoak as-tero klasean egingo direla ziurtatu behar du, eta denek egingo dituztela. Orain arte garrantzirik eman ez bazaio denbora galtzea zela pentsatuz, pentsamendu hori aldatu egin behar da. Jolaslekuan gertatu denaz galdetzea eta horretaz hitz egitea hizkuntza lantzea da, ez da edozer gauza, eta horretaz kontziente izan behar du irakasleak. Ahaztu gabe, noski, hizkuntzaz gain giza harremanak, balioak eta abar ere lantzen direla.

Eskolako momentuak eta egoerak aprobetxatzen jakinez gero, eta estrategiak argi izanez gero, nik uste dut pauso handia eman daitekeela ahozkotasunaren irakaskuntzan.

#### **Horretan trebatzeko mintegiak ematen ari zara irakasleei. Zer egiten duzue mintegietan?**

Beren burua grabarazten diet irakasleei. Ondoren, 10 minutuko zatitxo bat transkribatzen dute eta lupaz ikusten dugu zer pasatu den. Gauza asko ateratzen dira, ikasgela batean hamaika gauza egiten baitira aldi berean eta ira-

kasleak mila gauza egiten baititu: atzeldekoek ulertu duten kontrolatzen du, jabetu ez denari galdetu egiten dio, gelan gertatzen den guztia kudeatzen du... Grabaketa batzuetatik hamabizeregin atera nituen, eta hemezortzi ere atera daitezke. Etengabe eta aldi berean faktore askori begiratzen die irakasleak. Eta horrekin guztiarekin batera, hizkuntzaren esateko moduari eta ideien garapenari begiratu behar die. Lan handia dauka, dudarik gabe.

Nik irakasleei zenbat gauza egiten dituzten kontziente izan daitezen laguntzen diet. Izan ere, lanean ari zaren bitartean zaila da egiten duzun guztia kontziente izatea, ezin duzu guztiaz jabetu. Ez da erraza ohartzea eta auto-kontzientziatzea, ez da ikasi eta kito. Entrenamendu luzea behar da diskurtsoaren antolaketari eta ahozkoaren forma horri erreparatzeko, normalean jendeak ahaztu egiten baitu. Horregatik, entrenamendua behar da, buruan ideia pare bat argi eduki eta entrenamenduan ikusi gauzak nola egiten diren, arazoak non dauden eta horiek konpontzeko zein plan egin. Hori guztia egin ondoren berriz grabatu egiten dugu.

### **Bertsolaritza ahozkoatasuna lantzeko bitarteko bat dela esaten da. Ados al zaude baieztapen horrekin?**

Nik uste dut interesgarria dela jario-tasunerako, eta agian sentsibiltate erritmikorako eta hizkuntzaren sentsibiltaterako. Baina nik beharrezkoa ikusten dudana beste gauza bat da: eguneroko bizitzarako, eguneroko jardun guztietarako, akademikoaz aparte, behar den besteko jario-tasuna, zuzentasuna eta koherentzia lantzea. Eta hori oso konplexua da.

### **Gaur egun eztabaidagai dira A, B eta D hizkuntz ereduak. Zer iritzi duzu horri buruz?**

Ez dugu hain zurrinak izan behar definizioan, errealitatean edo praktikan ere ez baikara. Egoera aldatzen ari da. Adibidez, B eta D ereduetan ingelesari ordu gehiago ematen zaion heine-

an, euskarari kendu egin zaio. Herri batzuetan gaztelania ordu gehiago eman beharko dira, eta beste batzuetan euskara gehiago. Azken finean, ikastetxe bakoitzak bere egoerara egokitutako murgiltze ereduak behar du, eta ez du A, B eta D ereduaren sistemara mugatu behar.

Bestalde, D ereduak irakasle guztiek euskaraz jakitea ekarri du, hau da, zentroa euskalduntzea. Horrek zentrori beste maila bat eman dio. Irakasle euskaldunak eta elebidunak dauzkagu, eta ikasleei behar den bezalako erantzuna eskaini diezaietke; ez kafea denontzat, baizik eta kafesnea, deskrematua... Hori da behar duguna.

### **Zer egin behar dugu hizkuntzen irakaskuntzarekin etorkinen kasuan?**

Galdera da etorkizunerako zer nahi dugun. Zer nahi dugu, kanpotik datozen haurrak euskaldundu daitezen, herri honen kulturaren jarraibideak ikas ditzaten eta hemen nor senti daitezen, ala bazterrekoak senti daitezen? Zer da hobe denontzat?

Gero eta hizkuntza gehiagotako haurrak etorriko dira eta eskolak behar izanen arabera moldatu beharko ditugula uste dut, beti helburuak argi edukita; hots, hizkuntza biak irakatsi behar dizkiegula.

Ez da tontakeria, oso dema indartsua da. Gure mekanismo metodologikoak, materiala eta antolaketa moldatu egin beharko ditugu. Funtsezkoa izango da antolaketa malguak egiten jakitea, talde txikiak osatzea, ikasgaiak eta jarduerak egokitzea...

### **Ez al dago arriskurik etorkinek gaztelania ikasi eta euskara ikasi gabe gelditzeko?**

Gure jokaeraren arabera dago hori. Guk euskara ikasteko aukera ematen eta eskaintzen badiegu, ikasiko dute. Horretarako, beraien egoera eta baldintzak ondo ulertu behar ditugu.

### **Zer eskaini behar diegu?**

Euskarazko ereduak eskaini behar



dizkiegu, nahiz eta erdara ere ikasi beharko duten. Izugarritzko lana da bi hizkuntzak zerotik irakastea eta ikastea. Horregatik, daukagun dema ez da tontakeria. Nik uste dut ideia zabalekin eta irudimenez jokatu behar dugula, eta ez ideia itxi eta zurruneekin. Ez dakigu gauza asko nola aterako diren, baina etorkizuna pixka bat aurreratzen has gaitzke, etorkizuna asmatzen eta bidea egiten. Errakuntzak egingo ditugu, baina borondade eta lansendoa eginez gero, zuzenduko ditugu. Kontua da lehenbailehen eta serio heltzea gaiari.




# Teknologia Berriak

## Teknologia berriei begirada desberdin bat

Orain arte teknologia berrien ikuspegi orokorra eman dugu, eta telebista nahiz bideoari buruz hitz egin dugu. Hilarabete honetan ordenagailuari buruz idatzi behar nuen, baina, behin eta berriz pentsatu ondoren, horretaz aritu aurretik beste hausnarketa bat egiteko beharra dagoela uste dut; hau da, informazioaren teknologiak agertzearen ondorioz gizartean azaldutako egoera berria. Askok diote egoera berri horrekin desberdintasunak parkatuko direla, eta Interneti esker, edozein informazio lor daitekeenez, ezaguera eta klaseen arteko desberdintasunak desagertzen direla. Egia al da hori? Azter dezagun gaia.

### Teknologia berriek sortzen duten analfabetismo berria

Nik lortu ditudan azken datuen arabera (Eustat, 2002ko otsailaren 1a), Euskal Herrian %40,3 familiak besterik ez daukate ordenagailu CD-ROMarekin etxean, eta %24,1k Internet konezioa. Zer esan nahi du horrek? Alde ba-



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan trebatua

etik, Euskal Herriko biztanleriaren erdia baino gehiagok ez daukala teknologia berriak eskuratzeko aukerarik, eta bestalde, biztanleriaren laurdenak baino ez daukala Interneteko konexioa etxean. Denok dakigu Internetik ez daukatenak klase sozial xumeagoetatik datozela, eta distantziak gero eta zabalagoak egiten direla. Zergatik? Kontuan izan behar dugu gaur egun ordenagailu batek batez beste bost edo zazpi urteko bizitza daukala; horrenbestez, zazpi urtero tresna berri bat erosi beharko genuke ordenagailu egokia edukitzeko. Horren ondorioa nahiko argia da; batzuek gero eta informazio gehiago edukiko dute beren esku, eta beste batzuek gero eta eragozpen handiagoa edukiko dute ikasterakoan, etxerako lanak egiterakoan, lana bilatzerakoan... eta ezin dugu hori alde ba-

tera utzi. Geroxeago azalduko dudan bezala, informazioa eta boterea elkarrekin doazelakoan nago.

Teknologia berriek eragiten duten gizarte desberdintasuna orain arte azaldutakoa baino sakonagoa da. Zergatik? Teknologia berriek analfabetismo berria sortzen dutelako. Orain dela ia 150 urte Euskal Herrian biztanleriaren %57 analfabetoa zen. Industria garapenari eta eskolen aurrerapenari esker, batez ere, analfabetismoa pixkanaka jaitسي egin da. Orduan, teknologia berriek sortzen duten analfabetismoa enpresei eta ikastetxei esker desagertuko al da? Ez dut uste.

Orain daukagun zailtasuna zera da: analfabetismo berri hori eraztea ez dela batere erraza. Arrazoia nahiko sinplea da: gaurko irakurketa eta idazketa orain dela 150 urtekoaren antzekoa da; baina, gaurko ordenagailuek ez dute orain dela 10 urteko ordenagailuekin zerikusirik. Leihotako sistema eragileak erabat aldatu zuen ordenagailuaren erabilpena eta sistema eragile hori ere izugarri aldatu da urte gutxitan. Gaur egun Internet erabiltzeko aukera dago; bideoa digitalizatzea nahiko erraza da; posta elektronikoa erabil daiteke berehala komunikatzeko, testuak bidaltzeko, argazkiak bidaltzeko; txat guneen bidez distantziak desagertzen ari dira... Esan nahi dudana zera da: arlo horretan ez dela nahikoa prestakuntza



zehatza ematen, analfabetismo teknologikoa ere aldatzen delako denboran zehar. Hori da gure arazoa.

Gaur egun ia edozeini teknologia berriak erabiltzen jakitea eskatzen zaio lana lortzeko. Beraz, teknologia berrien erabilpenean eguneratua egotekotan Euskal Herriko biztanleriaren laurdenak besteek baino aukera gehiago izango du.

Testuinguru horretan bi aukera ditugula dirudi: desberdintasunak handitzen uztea edo prestakuntza iraunkorra ematea. Bigarren aukeran, denontzako prestakuntza nahi bada, laguntzak eman beharko litzaizkieke ordenagailurik erosi ezin dutenei. Zentzu honetan, adibidez, Konekta Zaitetz kanpainak desberdintasunak txikiagotzen lagundu du. Dena den, kontuan izan behar dugu informatikako enpresek beren probetxua ere bilatzen dutela.

Analfabetismoaren aurka borrokatzeko hezkuntzaren aldeko apustua egin behar dugu. Irakasleek aipatu dugun prestakuntzaren buru izan behar dute. Zergatik? Bi arrazoiengatik:

- Irakasleak direlako ordenagailuen hezkuntzarako erabilera didaktikoak ezagutzen dituztenak, eta azken finean, irakasleak egunero egon behar dutelako gela barruan ezaguera antolatzen.

- Ikasleei bizitzaren, hedabideen eta teknologia berrien ikuspegi kritikoa eman behar zaielako. Argi dago hedabideen atzean irudiak baino gehiago aurki dezakegula, eta ez badiegu hori ikasleei erakusten haien zerbitzuan egongo dira beti.

Batzuek diote teknologia berriekin irakasleen eginkizuna zalantzan jartzen dela, baina, nire ustez, teknologia berriek irakasleen garrantzia indartzen dute. Nolabait irakasleek gure gizartearen etorkizuna eraikitzen dute. Zentzu horretan, gauza xeble bat gertatzen da. Jendea ados dago, eta baita ni ere, sendagileak garrantzizkoak direla baieztetakoan, sendatu egiten baikaituzte. Baina, zer diote irakasleei buruz? Ez al dira garrantzizkoak ala? Nolako izango litzateke gizartea irakaslerik gabe?



### Hedabideak eta boterea

Ba al dago zerikusirik boterearen eta hedabideen artean? Askok diote gero eta hedabide gehiago daukagunez, hedabideak beren boterea galtzen ari direla. Nire ustez hori gezurra da, gero eta indar gehiago daukatelako. Eskuratutako informazioarekin ondorioak ateratzen ditugula pentsatu behar dugu. Baina, zer gertatzen da ematen diguten informazioa faltsua baldin bada edo desitxuratua baldin badago? Eman dezagun gatazka bati buruz jasotzen dugun informazioa aldatuta dagoela, pentsa dezagun haurrak elbarri geratzen ari direla esaten digutela. Gudaren aurka jarraituko al genuke? Hori historian zehar maiz gertatu izan da.

Pentsa atentatu bat gertatu eta gero jendea kalera pozik atera dela esaten digutela. Zer pentsatuko genuke? Hori ere gertatu da duela gutxi. Dorre bikiak eraso eta gero, palestinarrak pozik ikusi genituen. Dirudienez, kalera atera ziren gertaera hori ospatzeko. Irudi horiek munduan zehar eta Ameriketako Estatu Batuetan haserrea piztu zuten. Baina, 1991koak zirela jakin behar dugu, palestinarrak Kuwaiteko inbasioa ospatzen ari zirenekoak. Horrelako manipulazioen ondorioa nahiko serioa da.

Esan nahi dudana zera da: hedabideek informazioarekin joka dezaketela eta gure pentsamendua gida dezaketela. Haatik, hori ez da gatazketan soilik gertatzen. Propagandaren arabera, meheak edo argalak izan behar dugu, gure larruazalak leuna eta zimurrik gabekoa izan behar du, auto on bat eduki behar dugu eta beste hainbat gauza gehiago.

Eskolan Matematika, Gizarte Zientziak eta beste irakasgai interesgarriak ikasten dira, baina hedabideen ikuspegi kritikoa ere landu behar da. Gizartean ordenagailuak asko sustatu dira, eta nire ustez, gauza oso interesgarriak eskaini ditzakete, baina beste aldagaiak ere kontuan izan behar ditugu. Adibidez:

- Banakotasuna bultza dezakete.
- Kontsumo-gizartearen luzapena izan daitezke.

Horren haritik, ordenagailuak Troiako zaldia antzekoak direla diote batzuk, eta enpresek ikastetxeetan kontsumoa sustatzeko sartzen dituztela. Ez dakigu hori egia den edo ez, baina beti adi egon behar dugu.

Hilabete honetan ordenagailuari buruzko iritzi txarra eman dut, baina hala ere, erabilera asko ditu nire ustez. Zein? Datorren hilabetean ikusiko ditugu. Bitartean gure lanerako balio duten edo ez pentsa dezakegu. ●



## Ikasleek barneko sentimenduak adierazteko modu bat aurkitu dute olerkigintzan

Olerkia zertarako?  
Olerkia zertarako?  
Pentsmenu txarrak aldatzeko?  
Balio al du lasaitzeko edo atsekabea handitzeko?  
Kultura al da edo denbora galtzea?  
Dirua irabazteko edo euskara bultzatzeko?  
Barne sentimenduak kanporatzeko  
*Mikel Galarza*



**Oñatiko Mikel Aozaraza ikastetxean olerkigintza lantzeari garrantzia ematen diote. Maila guztietan du presentzia modu batera edo bestera, izan ere, olerkigintzaren lan-keta proiektu baten barruan dute, curriculumaren barruan sartuta. Horrela, DBHko 4. mailan olerkigintza sakontasunez lantzerira iristen dira. An-doni Salamero Euskara irakaslea da horren ardura duena.**

**Zer eskaintzen du olerkigintzak pertsonalki?**

Niretzat olerkigintza bizia bera da, bizian oinarritzen da. Bizidun orok, olerkiak idazten dituenen, bizi hori sentitu behar du eta biziaren zati izan behar du. Eta biziaren zati denean olerkigintzarekiko lotura estua sortzen da. Bizitza hori, barruan dugun hori, kanporatzeko modu bat da olerkigintza.

**Erraza al da 15-16 urteko gazteei hori adieraztea eta olerkiak idazten hastea?**

Poliki-poliki hasiz gero, bai. Adibidez, arkume handi bat aterako baligute jateko, eta inoiz arkumerik probatu gabe egongo bagina, segur aski ez litzai-guke gustatuko. Aldiz, arkume pusketa txiki bat aterako baligute, gustatuko litzai-guke. Olerkiekin ere gauza bera gertatzen da. Zizka-mizkak bezala at-era behar dira: olerki txikiak, ezagunak, goxoak, ez oso jantziak eta irudiak eta sinboloak erabiltzen dituztenak.

Ondoren, hori ezagutu eta gero, gauza gehiago lantzen joaten gara.

**Nola lantzen duzue?**

Hasieran olerkiak entzunez hasten gara. Entzuketarekin zerbait sentitzen dute eta hori prosaz adierazten dute. Hurrengo urratsa jolasten hastea da, hots, prosatik poesiarako jauzia ematea. Ordeka zabala utzi eta erreka batean sartzea bezala izaten da, eta erreka horretan egitura trinkoekin edo zabala-goekin jolas egin dezakete. Hori norberaren arabera gelditzen da.

**Zein helburu du horrek guztiak?**

Alde batetik helburu didaktiko bat du: poesia era dinamikoan eta aktiboan lantzea eta bizitzea, hau da, beste idaz-

le batzuk sortu dutenetik ikasi eta norberak bere kabuz barruak agintzen dion hura azaltzeko gai izatea. Olerkiaren urruneko irudia gerturatzea eta bere baliagarritasunaz jabetzea da xedea.

Horri loturik dago bigarren helburua, hots, poesiak gizartekotzeko duen benetako ahalmenaz jabetzea. Askotan olerkiak bakarrik ikusten, irakurtzen eta idazten ditugu, itxita, hesituta, mugatuta dagoen zerbait dela dirudi. Hori topiko hutsa da. Olerkia besteekin partekatu behar dugu, barruan daukaguna azaleratu eta adierazi egin behar dugu.



## Hatsa Elkarte



**Hatsa Elkarte olerkigintzari lotutako elkarte da. Olerkia gustuko dutenak eta olerkigintzan aritzen direnak biltzen ditu Senperen kokatutako elkarte horrek, eta urtean behin, martxoaren 19an, olerkarien festa antolatzen du. Olerkizale guztiak elkartu eta egun atsegin bat pasatzeko asmoz antolatzen da jaia, besteak beste, elkarren olerkiak entzunez. Auxtin Zamora idazle eta elkarteko koordinatzaileak elkartearen zereginen buruzko xehetasunak eman dizkigu.**

### Ama Lur

Ama lurra dugu maitatzen gauza asko digu ematen baina zer ari da gertatzen? Ondorio batera naiz iristen ez dakigula gauzak banatzen bizimodu hau dugunean aldatzen txiroei lagunduko diegu bizitzen.

*Miren Korkostegi*

### Poesia eta hatsa. Zein da bi hitz horien azpian mamitzen den filosofia?

Poesia hatsa bezalakoa da. Hatsa airetik hartzen dugu, bakoitzak berea, eta berriz ere airera itzultzen dugu, baina aurretik geurea den zerbait erantsiz. Ihintz fin bat, bustidura ezkutu bat uzten dugu espazioan, eta hori da norbanakoaren berezitasuna, norbanakok sortzen duena.

Poesia ere hatsa bezalakoa da. Gizarte osoarenak diren hitzak, sentimenduak eta pentsaerak hartzen ditugu, geure egiten ditugu, eta geure baitako ihintzarekin, sentimenduekin busti, eta berriz kanporatzen ditugu.

Poesia denona den gauza batetik sortzen dugun zerbait da, eta berriz denei itzultzen zaiena.

### Zein asmorekin sortu zen Hatsa Elkarte?

Oinarria poesia da, eta elkartearen nahia da poesia elkarrekin lantzea, par-

tekatzea, gozatzea eta bizitzea. Gure zeregina olerkiak landu nahi dituenari laguntzea eta elkarrekin poemak egitea da. Interesgarria da elkarte eta denon artean aritzea, egiakzi sorkuntza aberatsagoak egiten baitira modu horretara.

Horrela, elkartearen inguruan haurrak, gazteak zein helduak biltzen gara. Denon poemak bildurik urtero liburu bat argitaratzen dugu.

### Elkartearen ateak interesa eta gogoan duen orori irekita daude, baina horrez gain, hainbat eskolatara ere joan zarete.

Bai, hala da. Seaskako bostikastolatan eta zenbait eskola elebidunetan jardun gara. Irakasleei olerkia nola landu dezaketen azaltzen diegu, eta ondoren beraiek aritzen dira haurrekin. Izugarri didaktikoa suertatu da esperientzia eta haur batzuek elkarteak argitaratutako liburua osorik irakurri dute.

### Zer?

Barneko zelaietan,  
bihotz arrapaketan,  
zer sentitzen dugu?

Egun batean modu txarrean  
nahigabe sortzen bihotzean.

*Xabier Puerto*

## Liburuaren orrialdeetan barna

45 ikasleren olerki bilduma xumeak osatzen du Hatsaren Poesia liburua. Eurek osatutako poemekin batera, poesiari buruz duten iritzia ematen digute. Azken ikasturte honetan olerkigintzaren inguruan egin duten lanak baliabide hori hobeto ezagutzeko aukera eman die, eta nola ez, baliagarritasuna eta erabilgarritasuna ere aurkitu diote. Beren iritzia irakurtzea nahikoa da horretaz jabetzeko.

Olerkigintzari buruz nuen iritzia nahikoa aldatu da. Hasieran ez zitzaidan batere gustatzen olerkiak egitearena, agian nire ustez ez naizelako oso ona horretan. Baina poesia landu dugun heinean, nire zaletasuna handitzen joan da eta orain, jadanik, badut olerki bat nire kabuz sortzeko gaitasuna. Nire ustez denok dugu ahalmen hori, baina ezetz pentsatzean, ez dugu inoiz lortuko. Gainera, olerkigintzarena, oso bide egokia iruditzen zait zure sentimenduak adierazteko. *Maite Almeida*

### Hemen

Hemen dut nire etxea,  
hemen nire lagunak,  
hemen nire kezak eta  
hemen nire pozak.  
Hemen dut nire bihotza,  
hemen, Euskal Herrian,  
hemen dut bizia,  
hemen dut guztia.

*Maite Almeida*

Nire ustez poesia sentimenduak adierazteko erabiltzen den metodo onenatarikoa da. Azkenean laguntza bat dela iruditzen zait poesia. Uste dut poesiak bi alde dituela idazleak igortzen duenean eta irakurleak irakurtzen duenean, eta norberak irakurtzen duenean zein atsegina den.

Poesia beste mundu bat da, hainbeste gauza dago olerkian idazteko,

hainbeste gauza irakurtzeko. Mundu berezia da dabilenarentzat eta besteontzat zer esanik ez. *Jon Urkia*

### Poza

Irrifar leuna eta goxoa.  
Jaioberri baten moduko usaia.  
Maitasunaren disdira  
Nire begientzako nigarra.  
Udaberriaren ardatza.  
Txorien txorrotxioen alegera.  
Haize finaren hots txistularia.  
Zeruko urdin ederraren ikusmira.  
Nire sentimenduen lehena.  
Bizitzako erdigunea,  
zainetatik doakidan irrika bizia.  
Aspaldidanik itxaroten egon  
naizen momentua.  
Fidagarria eta egiazkoa dena.  
Zuhaitz hostoen ametsa.  
Tristura gabezia.  
Zorionaren erregina.  
Nire munduko abestia.  
Azken finean,  
bizitzaren doinua.  
*Amaia Aranzeta*

Nahiz eta olerkiak asko ez gustatu badakit gauza labur baina sentimenduz eta indarrez betetako testuak direla; eta ez da beharrezko hitz asko sentimendugoxo bat adierazteko. *Leire Irizar*

### Oharra

Bihotzak hitz egin zidan,  
jauzi bat egitean  
belarrira hitz egin zidan  
ni ohartaraztean  
Makila bat eman zidan  
hari jarraitzeko  
bidea aurkitu arte  
ez etsitzeko.

*Gorka Goitia*

Oso antzekoak direla uste dut bai bertsoak eta olerkiak, baina bakoitzak bere izaera du. Olerkiei, kaleetako "pintaden", "graffittien... antza hartzen

diet, norbaitek hauek egiten dituenean zerbait aldarrikatzeke izaten da, noski ez guztiak, baina bai gehienak. Nire ustez, hauek egitea ez da ematen duen bezain zaila. Baina, hala ere landu egiten behar dira, hau da, esan nahi dudana edo aditzera eman nahi dudana zera da; olerkiak egiteko ez dela jaioko behar, beraien artean bizi baino ez dela egin behar duste dut. *Jon Igartua*

Nire ahotsa apurtu egiten da,  
zure izena esatean,  
nire begiek negar egiten dute,  
iragana gogoratzean.  
Gure begiak topatzen zirenean,  
nire bihotz-taupadak  
handitu egiten ziren,  
orduan jakin nuen,  
benetan nor zinen.  
Nire ahotsa apurtu egiten da,  
zure izena esatean,  
nire begiek negar egiten dute,  
zuk ni ez maitatzean.

*Nagore Goñi*

Olerkien inguruko ikuspegi txarra bazenuten, agian, idaztea ere, ez duzue gogoko izango, txorakeria bat irudituko zaizue zuen arazoak biziduna ez den bati azaltzea; orri txuri bati, alegia. Hori argi dago zergatik den: inoiz egin ez duzelako. Gezurra badirudi ere, daukazuen arazoak idatzi egiten badituzue, zuen barrua askoz ere lasaiago gelditzen da, nahiz eta orri batean idatzirik egon. *Leire Zubia*

### Zer da loa?

Gau ilunean begiak isten  
laguntzen diguna  
Zer da loa?

Ametsetara abiatzeko  
bidezidorra erakusten diguna  
Zer da loa?


Egun berri bat hasteko  
aukera ematen diguna  
Zer da loa?

*Ane Markueta*

## Osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentzioa eskolan

Ezin esan daiteke eskolaren zeregina soilik denik osasunerako eta droga-menpekotasunen prebentziorako neurriak hartzea. Oro har, gizarteak hartu behar du ardura hori, erantzukizuna guztiona delako. Edonola ere, eskolak bere alea jar dezake. Askagintzaren barruan da goen Izadia kabineteak horretan laguntzen du, osasun heziketako prestakuntza ematen dihardu hainbat ikastetxetan.

Txus Conjil Izadiako partaide den aldetik, guraso, irakasle eta ikasleekin dabil osasun heziketako plangintzak martxan jartzen eta prestakuntza ematen. Azpeitiko Ikasberri ikastolan orain dela hiru urte hasi ziren osasun heziketako plangintzarekin, eta gainontzekoak bezala, Izar Arregi ikastolako psikologoa eta orientatzailea gertutik bizitzen ari da prozesu osoa.



**Txus Conjil:** "Osasun heziketa prozesu bat bezala planteatzen dugu eta protagonistak ikasleak dira, irakasleak tresna profesionalak dira"

**Zuretzat zer da osasuna, Txus?**

Osasuna ez da alderdi biologikoa soilik, orokorragoa baizik. Eguneroko bizitzarako tresnak eta trebetasunak edukitzea, eta erabakiak hartzeko, komunikatzeko eta gatazkei konponbidea emateko gai izatea ere osasuna da. Pertsona gustura sentitzen bada, autoestimu altua badu eta autonomia badu, askoz hobeto moldatuko da elika-

durarekin, garbitasunarekin, drogekin, sexu harremanekin eta abar. Osasuna ingurunearekin ondo egotea da, ongizatearekin lotu behar da eta ez gaixotasunarekin.

**Nola ulertzen da gaur egun osasun heziketa?**

Droga-menpekotasunaren eta osasun heziketaren inguruan dauden planteamenduak nahiko partzialak dira. Hezkuntza sistemak ez

du erantzunik ematen eta ez du seriozki planteatzen gaia, zehar lerro bezala baizik. Betiko irizpideak lantzen dira: erretzearen gaia, loditasuna, anorexia... Eskola batean zerbait gertatzen denean eta alarma soziala pizten denean, orduan egiten da zerbait, baina bestela ez. Eta egiten dena, borondatez egiten da.

### **Nola ulertu beharko litzateke? Zer planteatzen duzue zuek?**

Guk planteatzen dugu benetako osasun heziketa ez dela hasten jaio ondoren, baizik eta aurretik. Aita edo ama izatea izugarritzko konpromisoa da. Pertsona bat baimenik gabe ekartzen dugu, gu gara protagonistak eta gu gara erabakitzaileak. Orduan, maila horretan hasi behar da osasuna eta heziketa kontuan hartzen.


Dena dela, guk hezkuntza zentroetan planteatzen dugun programa 2 urtetik 18 urtera arte mugatzen da.

### **Nola uztartzzen dituzue eskola eta familia?**

Familiak eta eskolak adostu egiten dute martxan jartzen dugun programa. Izan ere, bai batean zein bestean egiten denak ildo berean egon behar du eraginkorra izan dadin. Ez dute funtzio berdina, baina bai osagarria. Bestela, neska-mutilek leku bietatik gauza desberdina hartzen dute eta kontraesanak sortzen zaizkie.

### **Osasuna heziketak integrala izan behar du, orduan.**

Bai, bestela puntualki lantzen da: orain hitzaldi bat elikaduraz, beste bat anorexiari buruz, edo Malagan gertatukoaren ondoren beste hitzaldi bat drogei buruz... Hori boluntarismo hutsa da eta benetako interbentzioa da behar dena, programa sistematizatua eta ebaluatua. Hainbeste urte pasa ondo-



ren boluntarismoarekin eta inprobisazioarekin jarraitzea nahiko larria da nire ustez. Askotan ez da denbora soilik galtzen, indarrak ere bai, eta ez da eraginkortasunik lortzen.

Nire ustez, hezkuntzaren kalitatez mintzatzen garenean gutxiago hitz egin behar dugu ondorio akademikoez, kontrolaz eta azterketaz, eta gehiago eraginkortasunaz, baina era orokorragoan eta integratuta.

### **Zein da osasun heziketako programaren berezitasun nagusia?**

Osasun heziketa prozesu bat bezala planteatzen dugu eta bertan protagonistak ikasleak dira. Irakasleak tresna profesionalak dira, eta horiekin batera orientatzaileak eta familia daude.

Gure lehen helburua osasun heziketaren inguruko informazio egokia, objektiboa eta argia ematea da, estereotipo eta aurreiritzirik gabe. Eta bigarren helburua, guretzat oso garrantzitsua dena, egoera kontsumista eta indibidualista ho-

netan beste balio sistema bat bul-tzatzea da: elkartasuna, komunikazioaren garrantziaz jabetzea, elkar ulertzea, elkarrekin negoziatzea eta abar. Hori lortzeko beharrezkoa da tresnak eskura jartzea, hots, erabakiak hartzeko, komunikatzeko, gatazkei konponbidea emateko eta abarrerako baliabideak ematea. Eta hori ere osasuna da.

### **Zer erlazio dago osasunaren eta norberaren nortasunaren artean?**

Zuk zure osasuna eta zure burua zaintzeko zure burua maitatu behar duzu, autoestimua positiboa eduki behar duzu. Frogatua dago besteekin ondo erlazionatzeko, soziala izateko eta sentimenduak adierazteko gai bazara, autoestimua ona edukiko duzula. Hots, elementu horiek guztiak erlazionatuta daude. Orduan, zenbat eta gehiago landu trebetasun sozialak, orduan eta autoestimua positiboagoa izango dela esan nahi du. Eta zenbat eta autoestimua positiboagoa izan, orduan eta hobeto zainduko dugu geure burua.

# Ikasberri ikastolako esperientzia

## Izar Arregi: "Ez dugu mezu paternalistarik eta ezezkorrik eman behar, baizik eta autoerantzukizunarena"

### Nolatan sartu zineten osasun heziketarako proiektu honetan?

Gure ikastola kooperatiba bat da eta gurasoen eskariz sartu ginen proiektu honetan. Sexualitatea eta droga-menpekotasuna landuko zituen programa bat ezarri nahi zuten eta langileok ondo bideratuko genuela ziurtatu nahi zuten. Orduan, Izadia taldekoe-kin jarri ginen harremanetan.

### Nola planteatu duzue?

0-18 urte bitartean ezarri dugu eta maila guztietan zerbait landuko dela ziurtatzen dugu. Gu lantzen ari garena hiru urteko plangintza da: lehenengo urtean irakasleok prestakuntza jaso genuen, bigarren urtean materiala aztertzen eta helburuak finkatzen aritu ginen eta hirugarren urte honetan hori guztia aplikatzen ari gara.

### Zer aldarazi zizuen hasierako prestakuntzak irakasleoi?

Gauzak ulertzeko modua aldarazi zigun, atzetik dagoen filosofia, eta hori ondo barnetatuta gelditu zaigu. Irakasleok eduki behar dugun jarrera zein den ikasi dugu, eta orain aplikatzen ari gara. Oinarriak ondo landuta dauzkagu. Autoa erosita daukagu, gida baime- na ere badaukagu, eta orain lehen mar- txia edo hirugarren martxa noiz sartu behar dugun ikusi eta ikasten ari gara.

### Zer dago filosofia berri horren azpian?

Ez dugula mezu paternalistarik eta ezezkorrik eman behar, baizik eta autoerantzukizunarena. Hau da, ikasleei ez



diegu esan behar "drogak ez hartu", baizik eta "begira, zuk erabaki, baina ikusi alderdi onak eta txarrak". Zigarroak erretzen edo parranda egiten has- ten direnean, ez erretzeko edo parran- darik ez egiteko esan ohi diegu. Beti mezu ezezkorrak ematen dizkiegu, nahiz eta jakin horrek ez duela funtzio- natzen eta gehiago erakartzen dituela. Ezetz esan behar hori gure kontzien- tzian sartuta daukagu.

Orain, ordea, konturatu gara hori baino askoz ere garrantzitsuagoa dela beste mezu batzuk ematea. Adibidez, "begira, niri beldurra ematen dit, nik ez dut nahi zuk hori egitea, baina egi-

ten baduzu gutxienez informa zai- tez". Edo ereduak jar ditzakegu: "begi- ra, horrek ez du erretzen".

Filosofia aldaketa hori gertatu da irakasleongan; lehen mezu paternalis- ta edo agintariak ematen bagenizkien, orain beste pentsakera bat dugu.

Hala ere, ez da erraza. Askotan lehe- nengo pentsakerak aldatzen dira, eta jarrerak geroago. Oso zaila da guztiz barneratzea, oso zaila da jarrerak eta izaerak guztiz aldatzea. Baina era bere- an, oso garrantzitsua da irakasleok jarrera aldaketa horiek adieraztea ge- ro ikasleei transmititu behar baldin badiegu.

# “Ikasleak desiatzen egoten dira horrelako gaiak lantzeko eta guk enpatiarekin eta afektibitatearekin hurbildu behar dugu, baina hezitzaile eta guraso papera galdu gabe”



laz materiala prestatu eta plangintza zehaztu zenuten, eta aurtendena praktikan jarri duzue. Zer egiten ari zarete?

Lehen Hezkuntzan *Lagunekin baratzean* materiala erabiltzen ari gara eta goiko mailatan fitxak lantzen. Lantzen ari garen heinean gauza eta behar berriak ikusten ditugu eta horiek betetzen ari gara pixkanaka-pixkanaka. Txusen laguntza ere jasotzen dugu eta jarraipen horrek ere bermatzen du gure lana. Irakasle batzuek beste batzuek baino jarduera gehiago egin ditzakete, baina garrantzitsuena, lehen esan dudana bezala, azpian dagoen filosofia da.

**Nolako harrera izan du ikasleen aldetik?**

Oso gustura daude. Ikasleak desiatzen egoten dira gai horiek lantzeko, desiatzen daude momentu bat aurkitu eta beraien artean gauza horietaz hitz egiteko, asko gustatzen zaie, horiek baitira beraien eguneroko kezkek eta motibatzen dituzten gaiak.

Gure jarrera aldaketak ere eragina izan du beraiengan. Irakasle agintari baten ordean entzuten eta ulertzen dien irakaslejoaten bazeaie, beraiek ere beste jarrera bat hartzen dute. Drogak txarrak direla esanez joaten bazara, berehala deskonektatzen dute. Enpatiarekin, beren lekuan jarritz, afektibitatearekin joan behar da, baina hezitzaile eta guraso papera galdu gabe. Eta mezuek ere irekiak izan behar dute, ez dogmatikoak eta debetzaileak, hezitzaileak baizik.

Azken finean, gazteak dira arrisku egoeran daudenak, ez irakasleak, profesionalak eta gurasoak. Orduan, hobe da beraiek prestatzea, beraiek direlako protagonistak. Jakinaren gaineran egon behar dute beraiek direla erantzuleak. Argi eta garbi esan behar zaie: “zuk esperimentatzen baduzu, zuk kontsumitzen baduzu, ez duzu haurrak bezala egin behar, erantzukinez eta ondorioen gaineko ardurak hartuta baizik”. Oso garrantzitsua da haurrak bezala ez tratatzea, heldu bezala baizik. Eta hori, txikitatik egin behar da, bakoitza bere mailan.

**Zer landu daiteke txikitik?**

Adibidez, txikitatik erakutsi behar zaie jostailuak gordetzen. Askotan gurasoek gordetzen dituzte, eta erakutsi egin behar zaie ez dela jolastea soilik.

Garbitasunaren kontzeptua ere garrantzitsua da. Ez da beti mukiak kentzen egon behar, baina garbi egotea osasuna dela jakin behar da. Erantzukinaren heziketa dei geniezaioke horri. Adinean gora egin ahala, ardura eta eskubide gehiago izango dituzte, biak, ez eskubideak soilik, ardurak ere bai.

**Zer diote gurasoek?**

Gurasoekin lotura estua daukagu. Lehenengo urtean topaketak eta hitzal-diak egin genituen eta iaz sexualitateari eta droga-menpekotasunari buruzko hiru saio egin genituen. Eskola moduko bat ere egin genuen beraien kezkek eta beharrezko ziren jakiteko. Horrez gain, arazoak sortzen direnean (tabakoa edo hatxisaren kontsumoa, barne araudiak...) eskola komunitateko bileretan lantzen ditugu denok batera. ●



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak apirila

Estatu espainiarreko hainbat unibertsitatetako Didaktika eta Eskola Antolakuntzako Sailek bi urtean behin antolatzen duten kongresuaren VII. edizioa Donostian ospatuko da aurten uztailaren 4tik 6ra. Jorratuko den gaia honakoa izango da: *“Europako batasunean datorren hamarkadan dauden hezkuntza erronkak eta antolakuntzan daukaten eragina”*.

Antolatzaileen esanetan gaurkotasun handiko gaia da, izan ere, Biltzarra egin aurretik, Europako Kontseiluak *“Hezkuntza Sistemen etorkizuneko helburu zehatzak”* izenburuko txostena onartzea aurreikusuten baitute. Onartutako helburuek eragin handia izango dute datorren hamarkadan Europako hezkuntza sistemen antolakuntzan eta gestioan. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaie horri buruz lehen eskuko informazioa edukitzea, eta, bereziki, proposamenei buruz hainbat ikuspegitik hausnartzea, eta horiek alderatzea eta kritikoki aztertzea. Bestetik, HEAUB Biltzarrek bere bidea egin dute, eta aipatutako gaiaren inguruko ekarpenez gain, hezkuntzaren antolakuntza eta gestioari lotutako eta behin eta berriro errepikatzen diren hainbat gai badaude, biltzar honetan ere aztertuko direnak.

Biltzarra bi leku desberdin baina bata bestearengandik oso gertu dauden Aretoetan egingo da. Goizez, profesionalak, I. M<sup>a</sup>. Barriola eraikineko Aretoan bilduko dira eta, ikasleak, FHZFko Aretoan. Arratsaldean, ez dira bereiztuko profesionalen eta

## Hezkuntzarako Erakundeen Antolakuntzaren inguruko VII. Unibertsitate Arteko Biltzarra (HEAUB)

ikasleen esparruak eta guztiak aukera izango dute hitzaldietara zein tailerretara joateko.

### Uztailaren 4a, OSTEGUNA

**Ponentzia:** “Europako hezkuntza sistemen etorkizuneko helburu zehatzak eta antolakuntzan daukaten eragina”

**Hizlaria:** David COYNE, Socrates programako zuzendaria eta Europako Kontseiluko Hezkuntza Kontseilua izeneko dosierraren arduraduna.

**Ponentzia:** “Hezkuntza erakundeak herrialdeen Europan”

**Hizlaria:** Jane DAVIDSON, Gales Herriko Hezkuntza ministroa.

**Hitzaldia:** “Teknologia berriak: antolakuntzarako erronkak. eLearning-Europa”

**Taldea:** Julio CABERO, Carlos CASTAÑO, Josemi CORREA, Inés GABARI eta M. Rosario QUECEDO.

**Hitzaldia:** “Hezkuntza antolakuntzaren zuzendaritza”

**Taldea:** Miguel Á. SANTOS GUERRA, Luis Mari ELIZALDE, Benjamin ZUFIAURRE.

### Arratsaldeko tailerrak:

- 1.: Hezkuntza eta aniztasuna.
- 2.: Teknologia berriak.
- 3.: Hezkuntza antolakuntzaren zuzendaritza.
- 4.: Hezkuntza ez formala: gizarteratzea eta lan munduratzeko.
- 5.: Hezkuntza eta gizarte eragileek hezkuntzako zentro eta erakundeetan daukaten eragina.
- 6.: Eskola erakundeenereduak eta antolakuntzan izan dituzten esperientziak.

**Hitzaldia:** “Askatasunaren antolakuntzarako erronka, hezkuntza erakundeetan”

**Miguel FERNÁNDEZ PÉREZ**, Madrilgo Complutense Unibertsitateko katedraduna.

**Hitzaldia:** “Lanbide profilak eta lanbide irteerak hezkuntza arloan”

**Carlos MARCELO**, Sevillako Unibertsitateko katedraduna.

“Hezkuntzaren antolakuntza eta gestioa” materiaren edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

**Taldea:** Serafi ANTÚNEZ, Pello ARAMENDI eta Karmele BUJAN.

### Uztailaren 5a, OSTIRALA

**Ponentzia:** “Hezkuntza sistematik gestioatzea, jakintzaren gizarte berrian”

**Hizlaria:** Joan MAJÓ

**Ponentzia:** “Eskola bortizkerian esku hartzeko eta hori prebenitzeko politikak eta ereduak”

**Hizlariak:** Eric DEBARBIEUX eta Catherine BLAYA-DEBARBIEUX, Behatoki Europarra eskola bortizkeria aztertzekeko, Bordele 2 Unibertsitatea.

**Ponentzia:** “Hezkuntza erakundeek gizarte kohesioaren aurrean daukaten eronkak”

**Hizlaria:** Ettore GELPI

**Hitzaldia:** “Hezkuntza ez formala: herriaren heziketa berria”

**Taldea:** Joaquín GAIRÍN, Gloria DÍAZ, Xabier ETXAGUE, Javier GALARRETA eta Juan Ramón OYARZABAL.

**Hitzaldia:** “Hezkuntza eta gizarte eragileek hezkuntzako zentro eta erakundeetan daukaten eragina”

**Taldea:** José Luis SAN FABIÁN, Maite ARANDIA, M. José ALONSO eta Begoña TELLERIA.

**Hitzaldia:** “Eskola erakundeenereduak eta antolakuntza izan dituzten esperientziak”

**Taldea:** Manuel LORENZO, Jaione APALATEGI eta Xabier GARAGORRI.

**Hitzaldia:** “Antolakuntzan dauden harremanak”

**Miguel A. ZABALZA**, Santiagoko de Compostelako Unibertsitateko katedraduna.

**Hitzaldia:** “Eskolatzeari buruzko eztabaida”

**José GIMENO**, Valentziako Unibertsitateko katedraduna.

“Hezkuntzaren antolakuntza eta gestioa” materiaren edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

**Taldea:** Serafi ANTÚNEZ, Pello ARAMENDI eta Karmele BUJAN.

## Uztailaren 6a, LARUNBATA

**Mahaingurua:** Datorren hamarkadan, Europako Batasunean sor daitezkeen hezkuntza erronkak eta antolakuntzan daukaten eragina.

**Hizlariak:** David COYNE, Jane DAVIDSON, Joan MAJÓ eta Eric DEBARBIEUX, Ettore GELPI.

**Hitzaldia:** "Hezkuntza eta aniztasuna: gutxiengoak gizarteratzea"

**Taldea:** José R. ORCASITAS, Amando VEGA, Begoña MARTÍNEZ eta Virginia PÉREZ-SOSTOA.

*Tailerren emaitzak eta Didaktika eta Hezkuntza Antolakuntzako Saileko irakasleek bilera-asanblada egingo dute.*

## Informazio gehiagorako:

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Ignazio M<sup>o</sup>. Barriola eraikina  
Tolosa hiribidea, 70

20009 Donostia

Web: <http://www.sc.ehu.es/towcioie/Estructura.htm>

# Getxo Linguae jardunaldiak: hizkuntzen tratamendu bateratua

Getxoko Berrizeguneak **Hizkuntzen tratamendu bateratua** izeneko jardunaldia antolatu du maiatzaren 8 eta 9an. Hizkuntzen irakaskuntzako profesionalei prestakuntzarako bidea eskaini nahi die, eta horretarako, honako egitaraua duen jardunaldiak antolatu dituzte.

### Maiatzaren 8an

9:30ean Aurkezpena

10:00-12:00 Josep M<sup>a</sup> SERRA, *Elementos para la reflexión en la elaboración de un tratamiento integrado de lenguas.*

12:30-14:00 Uri RUIZ BIKANDI, *Hizkuntza beste arloetan.*

16:00-18:30 Esperientziak:

- Txingudi ikastola (Rosa Mari Arano).

- Begoñazpi ikastola (Nerea Begoña eta Mari Carmen Landajo).

- S. Arrizabalaga, A. Corta, N. Iza, A. Montero, M. Ramos eta E. Viteri (BH Gasteiz).

- Ikastolen Elkartearen Hizkuntza Proiektua (Itziar Elorza eta Erramun Osa).

### Maiatzak 9an

9:30-11:30 Montse FERRER, *Decisiones en la elaboración de una programación integrada. Organización y secuenciación de contenidos.*

12:00-14:00 Carmen RODRIGUEZ, *Caminos de reflexión metalingüística desde cualquier área.*

16:00-17:00 Teresa RUIZ, *Actuaciones en la CAPV en el tratamiento de lenguas.*

17:00-18:00 Mahai ingurua.

Jardunaldiak Algortako Igeretxe hotelean izango dira.

Izen ematea [www.getxolinguae.net](http://www.getxolinguae.net) web orriaren bidez egin daiteke.

## Informazio gehiagorako:

Getxoko Berriztegunea.  
Tel.: 94 63 8 5 00

# "Lanbide Heziketa eta lan mundua euskaraz" jardunaldiak

Euskarak, gizartean normalizatzeko bidean, nahitaezkoa du lan munduan modu eraginkorrean presentzia izatea. Erronka hori aurrera eramateko, Lanbide Heziketak paper garrantzitsua izan behar du. Alferrik izango da enpresetan euskalduntzeko planak gauzatzea, enpresa horietan lanean arituko diren etorkizuneko langileek ez badute bere lanbideko prestakuntza euskaraz egiteko aukerarik. Halaber, lanean diren langileek jaso behar duten etengabeko prestakuntza euskaraz ez bada, enpresa mailan euskararen garapena baldintzatuko da.

Hausnarketa horrek, Lanbide Heziketa eta Lan Mundua euskalduntzeko irakurketa integral bat egitera eramaten gaitu. Hau da, hain zuzen, LABek egin duen hausnarketa eta jardunaldi hauek antolatzeke izan dugun arrazoia.

### Helburuak

- Lanbide Heziketan eta Lan Munduan euskalduntze arloan dauden gabeziak aztertzea.

- Lanbide Heziketaren euskalduntzeak dituen argiak eta itzalak azaldu.

- Lan mundua euskalduntzeko Lanbide Heziketak duen garrantzia azpimarratu, eta ematen ari diren pausoak aztertzea.

- Euskararen garapenerako hain garrantzitsua den gai honetaz estrategiak definitzeko bideak jarri.

### Lantzeko ildo nagusiak

1. Euskarazko Material didaktikoak eta Prestakuntza.

2. Euskararen mapa Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Euskalduntzeko estrategiak.

3. Enpresetan egiten ari diren esperientziak.

### Lekua eta data

Eibarko Unibertsitate Laboralean, Otaola 29  
2002ko apirilaren 27an, larunbata.

### Ordutegia

09:30 - Partaideen harrera

10:00 - Agurra eta aurkezpena

10:15 - Saio komunak, ponentzien aurkezpena hiru lan ildoren inguruan

11:15 - Atsedaldia

12:00 - Saio komunak, ponentzien aurkezpenaren jarraipena

13:30 - Goizeko saioaren bukaera

14:00 - Bazkaria, Unibertsitateko jangelan izango da


15:30 - Arratsaldeko saioa, lan taldeak hiru lan ildoren arabera

17:00 - Atsedaldia

17:15 - Ondorioak eta Agurra

18:30 - Bukaera

# Argitalpenak




**Euskaldunen ingurugiroan  
(espazioa eta denbora)**  
Txomin Peillen  
Dakit

Euskaldunon ingurugiroan, egi-  
leak euskaldunok darabilgun hizke-  
ra eta hiztegia azaltzen dizkigu. Espa-  
zioa eta denbora adigaien euskal  
ikuspegia aztertzen ditu bi aldetatik.  
Batetik, hiztegia sailkatzen eta iker-  
tzen ibili da, euskaldun zaharren eta  
oraingoen kategorien ikertzeko.  
Bestetik, gure olerkari, eleberrigile  
eta filosofoen obrak aztertu ditu •




**Oinez, bizikletaz, zaldiz**  
Amaila Elozegi  
Nafarroako Gobernuako  
Hezkuntza eta Kultura  
Departamentua

Liburu hau, oro har, edozein ira-  
kurlerentzat, eta bereziki, "Natur  
ingurunean gorputz eta kirol jarduerak  
gidatzea" izeneko Heziketa Zikloko  
ikasleentzat sortua da. Edukiak hiru  
gaitan banaturik: ibiltzea, bizikleta  
eta zaldia. Horien barruan aztertu eta  
azaltzen dira orientazioa, metereolo-  
gia, pioleta erabiltzea, ibilbideak... •



**Bihotz nahasiak**  
Fernando Morillo  
Ibaizabal

*Ekin* saileko liburu honetan lau  
ikasleren arteko harremana eta uste-  
kabeen murgilduko diren misterioa di-  
ra ardatz. Bi neska eta bi mutilak  
egoera nahasi eta korapilatsu bat argi-  
tzen hasiko dira, eta berehala kontura-  
tuko dira, askotan, dagoena ez dela di-  
rudiena. Misterio guzti honetan ji-  
poiak, Interneteko piratak, aktore os-  
petsu bat, Mutante ezizeneko irakasle  
xelebrea eta abar agertuko dira •



**Emozioen kuliska**  
Antton Kazabon  
Elkarlanean

Gazteentzat idatzitako poesia liburu  
hau sentimenduz mintzo da: mai-  
temina, samina, poza, tristura, bakar-  
dada, emateko desioa edo hartzekoa,  
naturaren indarra eta ederra norbera-  
ren sentipenen adierazgarri... Guztia  
hitz simple eta sarkorrekin, bihotzera  
zuzen iritsi nahi duten esaldiekin. Bizi-  
tza eta poesia ez direla aparte dauden  
gauzak islatu nahi da, txanponaren bi  
aldeak baizik. Poema guztiak marraz-  
kiz jantzita ageri dira •



**Gogoa**  
I-2 2001eko urria  
EHU

Aldizkari hau EHUKo Hizkuntza,  
Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari  
buruzkoa da. Urtean bi zenbaki argi-  
tzen dira eta hau iazko bigarrena  
da. Filosofo, logikari, hizkuntzalari,  
psikologo, matematikari, adimen ar-  
tifizialeko aditu eta ezagutzari buruz-  
ko teoriagile sozialen lanak jasotzen  
ditu, bereziki honako diziplina hauei  
loturikoak: logika, matematika, hiz-  
kuntzalaritza, psikologia, filosofia,  
informatika eta adimen artifizialak •



**Menpeko hizkuntzaren bizi-  
kemena**  
Nekane Arratibel, Maria Jose  
Azurmendi eta Iñaki Garcia  
UEU

Liburu honetan euskararen erabi-  
lera eta jabekuntza prozesuak (biga-  
rren hizkuntza modura) aztertzen dira,  
batez ere ikuspegi teoriko batetik. Ho-  
rrez gain, egileek proposatzen dituzten  
eredu teorikoak enpirikoki frogatzen  
dira; modu horretan, batetik, jabekun-  
tzak motibazioak betetzen duen rola  
eta, eta bestetik, erabileran identitateak  
duen garrantzia dituzte aztergai •



usk l h rr k  
r sk l

# usk l h rr k r sk l

## h rr k m n

Urr n Eusk l h rr k h rr z r n t k k sl ,  
r k sl , ur s t h rr t r l t k z n r k  
k n n rr ou n m rtx n. H l uru h zkuntz  
s st m r t n h rr m h n r tu t  
h l uru h r h rr z h rr r r tz k uk r k z r rz .

st h l t h u t n...

- k n n 39 h rr t r h l u .
- 2261 un k r t h r tu u t . H r t t k , 45 r k sl k ,  
26 k sl k , 16 ur s k t l h rr t r r k .
- 2 . sku- rr n tu t t . k r l r r r .
- M m ntuz 9.5 s n or n oru l u r .
- 2 h tz l t ur k z n urutu r .

r xum t sun n, k n n r r k st tsu z n .  
Et r r k st h rr k h s r t k n uk n r f r m  
m t r n m tu tu

- h rr t uz t n h zkuntz s st m r t n  
l r r k k n l n n u n h zkuntz k m n  
m rtx n r rz , l .
- I k sl k , r k sl k , ur s k z n h rr t r r k l uk  
tu n u l k k k , k st l t k k z n r tu t k k  
h ur l h n z n r r n h zkuntz k k .
- h rr k tz k h zkuntz h rr k r r tuk tu n .

tu r s m n k n n n r t h r tu u t n  
l un k n l n u s t o , M rtx r n 23 n l s sun  
urutu k tz r r n usk l h rr k r sk l h rr  
k m n s r tu nu n . H m n k ur r , uk r k  
u n h rr t n t k k k m n k s r rz k t n r .  
S r r r h u u z t n k r n r r k , u z t n  
k r n r r n t z tsu .

h rr k m n s r tu z zu,  
h rr k m n s r tu z un

## Etengabeko ikaskuntzari begira daude Europako herrialdeak



### Etengabeko ikaskuntza eskaintzeko neurriak

Europako Kontseiluak etengabeko ikaskuntzaren inguruko hausnarketa egin zuen 2000ko martxoan eta urrian memorandum batean bildu ziren hausnarketa horren inguruko puntuak. Etengabeko ikaskuntzaren inguruko hausnarketetatik abiatuta Europar Batzordeak sei ekintza ildo zehaztu zituen 2001eko urrian, "Etengabeko ikaskuntzaren Europako eremuan egia bihurtzea" izenekoa, eta EAEn hainbat ekinbide jarri dira martxan lehenetsun horiek bideratzeko.

Lehenengo ildoak ikaskuntza baloratzea da eta Eusko Jurlaritzak Lanbide Gaitasuna Aitortzeko eta Ziurtatzeko Sistema ezarri du horretarako. Bigarrena informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea da, eta prestakuntza eta enpleguaren inguruko informazioa eskaintzeko leihatila bakarra ezarri nahi da. Hirugarren lehenetsuna ikaskuntzan denbora eta dirua inbertitzea da, eta kasu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera "Ikastxekin" programa ezarri da Lanbide Heziketako irakasleei informazioaren eta komunikazioaren teknologien inguruko prestakuntza emateko. Laugarren jomuga ikasteko aukerak pertsoneri hurbiltzea da, eta arlo horretan Premia Plana, Konekta Zaitetz eta Kzgunek aipatu ditu sailburuak. Bosgarren ildoak Europako herrialdeetan ibiltzeko oinarritzko gaitasunak eskuratzea da, eta bide horretatik Lanbide Kualifikazio Sistema ezarri da. Sistema horrek lanbide gaitasunen mailak, hedadura eta ezaugarriak identifikatzen eta ezartzen ditu. Azken puntua pedagogia berritzailean oinarritzen da, eta arlo horretan e-learning proiektua eskainiko da informazioaren eta komunikazioaren teknologien inguruan.

tuzte esku artean eta horietako bat aztertu dute azken bileran, Leonardo programa, hain zuzen ere.

Anjeles Iztueta Euskal Jurlaritzako Hezkuntza sailburua ere bertan izan zen eta etengabeko ikaskuntzari buruzko hausnarketa egin zuen. Eskemak aldatu egingo direla eta etengabeko ikaskuntzaren etorkizunean sartuko garela aditzera eman zuen, lehengo eta oraingo egoerak ez direla berdinak argudituz. Lehen 6-14 urte bitartean ikasten zen; hemendik aurrera 0-85 urte bitartekoa izango da ikaskuntza, hots, bizitza osokoa. Lehen irakurketa-idazketa eta kalkulua ziren oinarritzko ikasketak; hemendik aurrera hainbat hizkuntzako irakurketa-idazketa, kalkulua eta teknologia berriak izango dira oinarritzko trebeziak, eta horrez gain ikasten ikasi beharko da. Lehen lanbide bat bizitza osorako izaten zen; hemendik aurrera lanbidez aldatuko dugu. Horri loturik, lehengo titulazio itxiak aldatu eta malgutu egingo dira; oinarritzko titulazioa edukitzeaz gain, ordu gutxiko titulazio asko egingo dira. Horrekin guztia-ekin loturik, eskola, familia, lana eta aisialdia erlazionatuta dauden guneak direla aipatu zuen eta hori aintzat harturik funtzionatu beharko dela. *"Gauzak asko aldatuko dira hurrengo urteetan"* iragarri zuen Iztuetak *"eta hemendik urte batzuetara gobernu guztietan bi ministeritza berri egongo dira: emigrazioarena eta etengabeko ikaskuntzarena"*.

Bizitza osoko Etengabeko Ikaskuntzarako Eskualdeko eta Tokiko Agintarien Europako Elkarteko (EARLALL) kideak martxoaren 2lean bildu ziren Donostiako Miramar jauregian. Elkarte hori bizitza osoko ikaskuntzaren inguruko politiken testuinguruan ekintza zientifiko eta pedagogikoak egiteko sortu zen. Azken bilera honetan elkarrearen funtzionamendua eta esku artean dituzten proiektuak izan dituzte aztergai.

Toskanako Hezkuntza ministro eta elkarteko presidente Paolo Benesperik elkarteak duen garrantzia azpimarratu du etengabeko irakaskuntzarako estrategiak aurrera eraman ahal izateko. Herrialde bakoitzeko egoera desberdina izanik, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu du, eta horregatik, europar politikak garatzeaz gain, politika lokalak ere beharrezkoak direla. Zentzu horretan, eskualdeek elkarrekin kolaboratzea, esperientziak elkartrukatzea eta proiektu komunean esku hartzea egoki ikusten dute hezkuntza sistemak garatzeko. Momentu honetan hainbat proiektu di-

# historiak zertzeladak

## Gipuzkoako Fraisoro sehaska etxea: haur abandonatuen trataera XX. mendearen lehenengo hamarkadetan



Arantxa URIBE-ETXEBERRIA

EHUko Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailko irakaslea

Gure adinekoen artean oraindik ere orobat *kaxako unea*, *haur exposita* edo *Fraisorokoa* izan zela entzuten dugu. Izen horien atzean haur abandonatuaren errealitatea ezkutatzen da, eta historiagileek haurtzaro abandonatua izenez landu dute gaia<sup>1</sup>. Gaur egun zenbait herrialde txirotan horren maiz gertatzen den fenomeno hori gure artean ere garrantzitsua izan da. Baina, zergatik uzten ziren haurrak? Nola sortu zen Gipuzkoako Sehaska Etxea? Nola egiten zioten aurre utzitako haurren haziera eta heziketari? Lantxo honek haurtzaro abandonatuari emandako trataera eskaintzea du helburu.

Nahiz eta denboraren eta tokiaren arabera arrazoiak aldatuz joan, historian zehar haurrak uzteko zio nagusiak pobrezia eta *ilegitimitatea* izan dira. Haurak hiltzea ekiditearren, XVI. eta XVII. mendeetan haur abandonatuak jasotzeko inklusak eta exposito etxeak zeritzen erakundeak sortu ziren Europan. XVIII. mendearen bukaeran gobernu gizonen idatzietan eta zenbait ekintzatan haurtzaroarekiko interes

berri bat nabarmentzen hasi zen, eta XIX. mendean eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, industrializazioaren bilakaerarekin batera ezartzen ari zen ordena sozial modernoan, haurtzaroaren babesaren eta defentsaren inguruko diseinu eta ezarpenarekin aurrera jo zen.

Prozesu horren barnean kokatzen dira haurtzaroaren legedi berezia -1904ko Haurtzaroaren Babesaren



Fraisoroko Sehaska Etxearen sarrera. (Kutxa Fototeka)

Legea, adibidez-, horrekin lotutako erakunde administratiboen sorrera, laguntza soziala eta hezkuntzan kokatutako zenbait ekintza<sup>2</sup>. Garai horretan haurren heriotza tasa, haurren abandonua eta haurren lana izan ziren arazo nagusiak. Momentuz haurren abandonu fisikoari buruz ariko gara, kategoria horretan bi abandonu mota kontuan hartzen zirela jakinda; alde batetik, abandonu fisikoa, hau da, *kaxako umeen* fenomeno; eta bestetik abandonu morala edota haur eta haurtzaro *gaizkilearen* fenomeno.

### Antolaketa administratiboa

Abandonuaren trataera modernoan kokatuz eta haur abandonatuaren egoeraren hobekuntzari bultzada nabarmena emanez, XX. mendearen hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiak Fraisoroko Sehaska Etxea eraiki zuen Zizurkilgo Landetxe probintzian. 1903an Donostiako Tornu Etxean jasota zeuden haurrak Fraisorora eraman zituzten, erakunde hori abian jarri. Exposito etxe berri horren modernizazio mailak eta horrek ahalbidetzen zuen kalitateak prestigioa izan zuen bai estatuan eta bai nazioartean ere, eta era horretako erakunde onenatarikotzat hartu zen<sup>3</sup>. Fraisororen ezarpena, XVIII. mendearen bukaeran hasi eta XIX. mendearen bukaera arte Biltzar Nagusiak eta Foru Aldundiak haur abandonatuari zuzendutako diru laguntzen antolaketa eta garapena bideratzeko prozesuaren ondorioa dugu<sup>4</sup>.

Horrela, 1910eko Expositoei buruzko Arautegian arlo horri antolaketa administratibo berria eman zitzaion. Alde batetik, 1844an sortutako Expositoen Partidu Batzordea (Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Bergarakoak) Gipuzkoako alderdi judizial bakoitzeko diputatuez osatutako Expositoen Batzorde Probintzialak ordezkatu zuen. Horrekin batera, herri bakoitzeko apaizak, alkateak, medikuak, eta

inudeak eta herriko haurrak begiztatuko zituzten Emakume Batzorde batek osatutako Batzorde Lokalak antolatu ziren. Batzorde horiek kaxako haurren hazkuntza eta heziketa egokiaren bermea eta zaintza gertutik egitea zuten helburu. Horrela, XX. mendearen hasieran Gipuzkoak nahiko garaiz ekin zien eraikuntza berri bati -hain famatua izatera iritsi zen Fraisoro etxea- eta administrazio sistema egoki bati.

### Amak, umeak eta inudeak

Fraisoroko Sehaska Etxean jasotzen ziren haur batzuk tornuetan utziak izaten ziren. Hortik zetorkien *kaxako ume* deitura. Beste haur batzuk ama etxeetan jaiotzen ziren (XX. mendean gehienek kasua hala zelan). *Tornua* antzina inklusarekin lotutako elementua dugu eta askotan inklusei ere tornu etxeak esaten zieten. Gipuzkoan, 1910 arte bost tornu zeuden Miserikordia etxeetan kokaturik; urte horretan Bergarakoa eta Azpeitikoa itxi egin zituzten eta Donostiako San Jose Egoitzakoa, Tolosako Miserikordia etxekoa eta Fraisorokoa 1916an itxi zituzten (garai hartan Bizkaian bat eta Nafarroan bi zeuden). Tornuen itxiera horrek haurren datuak gero eta gehiago ezagutzera ahalbidetu zuen, umeen jatorriari buruzko anonimatuari aurre eginez.

*Ama etxeak*, berriz, haurdunaldia- ren azken bi hilabeteetarako ama ezkongabeentzat prestatuta zeuden tokiak ziren. Gertuko inguruneak sorrarazten zuen lotsa, iraina eta bazterketa gainditzeko toki moduan sortu ziren XIX. mendean. Zentzu horretan, 1880an Gipuzkoako Foru Aldundiak ongintzako *Sorospen etxeen* ospitaleetako gela *itxiak eta zenbatuak* sortzeko agindu zuen, eta 1903tik 1913 arte Tolosako Miserikordia etxean zentralizatu zuten zerbitzu hori. Hamarkada horretako datu bilketaren arabera, Tolosako ama etxean haurdun zeuden 568 emakume ezkongabe hartu ziren, eta horietatik %75 inguru 15-25 urte bitartekoak

## Fraisoroko Sehaska Etxearen modernizazio mailak eta horrek ahalbidetzen zuen kalitateak prestigioa izan zuen bai estatuan eta bai nazioartean ere

ziren. Emakume gehienek erditutako umea (garaitako diskurtso moralistek *bekatuaren seme edo alaba* deitzen zien) utzi egiten zuten, eta ondoren Fraisoron jasotzen ziren. Emakume erdiak beren familietara bueltatzen ziren; besteak batzuk, aldiz, zerbitzari lanak betetzera burgesiaren etxeetara -kasu askotan inude modura- edo Fraisoroko umeak haztera joaten ziren, eta gutxi batzuk erlijio ordena batean sartzen ziren (Oblatu edo Adoratricesetan)<sup>5</sup>.

1913ko otsailean Fraisoron bertan amentzako gela bat ezarri zen, eta gero hainbat alditan handitu eta berrituko zen. Handik aurrera hara joaten ziren, eta ez emakume gipuzkoarrak soilik, baita beste lurralde batzuetakoak ere. Ama etxean sartutako emakumeen artean %50 besterik ez zen gipuzkoarra; gainerako %50etik erdiak Nafarroakoak, Iparraldekoak eta beste euskal lurraldeetakoak ziren; eta beste erdiak estatutako probintzietakoak.

Sehaska etxeetan jasotako umeen *haziera epea* kezkarria izaten zen,



heriotza tasa % 30-50 ingurura iristen baitzen. Gipuzkoan, berriz, garai hartan arazo horri aurre egiteko neurri sendoak jarri ziren martxan, eta ondorioz 1929an %7ra jaitsi zen heriotza tasa<sup>6</sup>. 1909tik aurrera ama etxean erditutako amek derrigorrean bere umeari bularra eman behar zioten, dudarik gabe garai-ko Haurtzaintzarako amaren edoskitzearen inguruko arau bati jarraituz. Geroago, 1916an titia emate hori bi hilabetekoa izatea ezarri zen, eta gauza bera egin zen bi urte beranduago Bizkaiko Exposito Etxean. Neurri horrek, elikadura egokia bermatzearekin batera, haurrarekin emakume gehiago gelditzea zuen helburu. 1931n garrantzi handiko neurria onartu zen: bere umea edoskitzeko eta hazteko ardura hartzen zuen ama ezkongabeari lehenengo bi urteetan diru laguntza ematea. Dudarik gabe, II. Errepublikaren irekitasun ideologikoak ahalbidetu zuen ama ezkongabeak umearekin gelditzea eta Sehaska etxeetan izan ziren kopuru handiak murriztea.

Lehenengo hilabeteetan amei bularra emanarazi ondoren, umeen hazierarekin jarraitzen zutenak *inudeak* edo *añak* izaten ziren. Historian zehar horien eskasia izan da haur abandonatuen biziraupenarekin lotutako beste arazo bat; bai *barruko inudeak* edo *internoak* deitzen zirenen eskasia (ama etxean erditu ondoren bere umea edo ta beste ume batzuk elikatzera gelditu edo geldiarazten zituzten emakumeak), eta baita *kanpoko* edo *externoena* ere (Fraisoroko ume bat etxean hazteko hartzen zuten emakumeak). Bibe-roiaren bidezko elikadura zabaldu arte (mende honen hasieran hasi zen prozesua), inudeen merkatua oso handia izan zen, eta eskaera-eskaintza erlazioaren arteko gorabeheraren arabera jokatuz izan zuen. Baina garrantzizkoa iruditzen zait azaltzea inude eskasia zegoenean eskasia horrek haur abandonatuak kaltetzen zituela beti, izan ere, sektore pribatuan inudeak askoz hobe-



Fraisoroko Sehaska Etxeko haurrak Karitateko Ahizpen ardurapean egoten ziren. (Kutxa Fototeka)

to kontsideratuta eta ordainduta zeudenez, hara joaten ziren lehendabizi<sup>7</sup>. Inudeen eskasia garaietan, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu horren ordainketak bilduz eta Udal batzordeei inudeen bila ibiltzeko eskaera eginez egiten zion aurre arazoari.

Haurrak inudeekin jartzeak oinarriko bi funtzio betetzen zituen: alde batetik, Sehaska etxeko umeen pilaketa arintzea, eta bestetik, haur horiek familia batean sartzea. Fraisoro sortu ondorengo hiru hamarkadetan haur berrien sarreraren batez bestekoa 160koa zela kontuan hartzen badugu, argi dago erakunde horren inguruan pertsona asko mugitzen zirela. Horrela, Foru Aldundiak haur horiek probintzian zehar zabaltzea eta bereziki baserrietara eta biztanle gutxiko herrietara bidaltzea zuen helburu. Inude horien betekizunak eta eskubideak (adibidez, sifilisaz kutsatutako inudearen diru laguntzak eta sendabideak, hileroko batzorde lokalengana joateko derrigortasuna...) araututa zeuden Gipuzkoan, eta 1909an euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu zen kartilan agertzen dira zehazki adierazita haurtzaintza modernoaren arauak haziera egokia izateko.

Gaur egun hainbeste zabaltzen ari diren adopzioak, nahiz eta *prohijazio*

prozedura bete, lehen ere egiten ziren, haur abandonatuen familiakotze prozesua bermatzen zenaren adierazle zirelarik. Batetik, inude batekin zegoen haurrak behin 7 urte betetzen zituenean, inudeak eta bere senarrak benetako *prohijazioa* egin zezaketen Diputazioan egiten zen kontratu moduko ekintza

**1903-1913  
bitartean  
Tolosako ama  
etxean haurdun  
zeuden 568  
emakume  
ezkongabetatik  
%75 inguru  
15-25 urtekoak  
ziren eta gehie-  
nek erditutako  
umea utzi egi-  
ten zuten,  
ondoren  
Fraisoron jaso-  
tzen zirelarik.**

# Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintzari esker, haur abandonatuen heriotza tasa asko jaitsi zen, eta haur horien bizitza penagarriak hobekuntza nabarmena izan zuen

formal baten bitartez. Bestetik, inudea izan gabeko emazte batek -eta bere senarrak- haur bat *prohijatu* nahi bazuten, honako pausoak eman behar zituzten: Tolosako Miserikordian haurra aukeratu, batzorde probintzialean eskaera egin, eta Exposito Batzordearen erabakiaren ondoren, *prohijazioaren* betebeharrak egin. *Prohijazio* horren bitartez, haurra seme edo alabatzen hartzen zuenak haurra zaintzeko, elikatzeko eta hezteko konpromisoa hartzen zuen, baina haurrek ez zeuzkaten seme-alabek legez izan ohi zizuten eskubide berak (ondareak jasotzekoa, adibidez). Adopzio legalak ere egiten ziren, baina oso bakanak ziren eta beti ere senar-emazteak seme-alabarik ezin izan zutelako erakutsi behar zuten, eta adoptatutako haurrak legez seme-alaben eskubideak jasotzen zituen.

*Prohijatutako* haurrekin gertatzen ziren gehiegikeriak kontrolatu nahian eta Batzorde lokalen pean zegoen betebeharrak hori ez zela betetzen ikusita, 1916tik aurrera herrietan zeuden haurren egoera kontrolatzeko *ikuskaritza bisitak* ezarri ziren Gipuzkoan. Eskoriatzako Exposito Batzordeko I. Arana kideak 1917an azaltzen zuen moduan,

maiz gertatzen ziren esplotazio egoerak: "... *los prohijantes tienen una mina con el expósito, sin que éste pueda pedir por sus trabajos una remuneración en metálico a que la mayoría de las veces es acreedor...*". Askotan esplotazio horrek ondoren gazte marjinala ekarri ohi zuen eta, egoera horri aurre egin nahian, Foru Aldundia zenbait neurri prestatzen hasi zen II. Errepublikara, hala nola, lan prestakuntza bultzatzeko proiektuak, probintziako lanetan sortzen ziren lanpostuetarako abandonatuek txanda ez gordetzea, edota ahalmen handiko abandonatuei ikasketak egiteko diru laguntzak eskaintzea.

Horren guztiaren ondoren, lehenik eta behin zera esan beharra dago: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintzari esker, haur abandonatuen heriotza tasa asko jaitsi zela, eta horrekin batera, haur horien bizitza penagarriak hobekuntza nabarmena izan zuela. Azpimarragarriena hobekuntza horretan inudeen -eta horien familien- ekintzak izan zuten garrantzia da, horietan izan baitziren haur horien hazkunderaren eta bizitzaren ardatz. Azkenik, ezin ahantz ditzakegu amak, beraiek izan zirelako burgesiaren giza ordenarekin lotutako emakumearen genero erakuntzaren prozesuan mespretxua eta zapalkuntza sufritu zutenak. ●

<sup>1</sup> Euskal Herrian zentratutako lanen artean hurrengoak aipa ditzakegu: VALVERDE, L. (1994): *Entre el deshonore y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*. Bilbo. UPV/EHU; URIBE-ETXEBARRIA, A. (1996): *Marginalidad «protegida». Mujeres y niños abandonados en Navarra (1890-1930)*. Bilbo. UPV/EHU; P. UNDA: "La exposición en Vizcaya en el siglo XIX: nacimiento y problemática financiera de la Casa de Expósitos de Bilbao". *Enfance abandonée et société en Europe (1991)*; MARTÍNEZ MARTÍN, M. A. (1996): *Guipúzcoa en la vanguardia del Reformismo social. Beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*. Donostia. Guipúzcoa Donostia Kutxa

<sup>2</sup> DAVILA, P., URIBE-ETXEBARRIA, A. eta ZABALETA, I. (1991): "Haurtzaroaren babesari buruzko ikuspegi historikoa". *Tantak*, 6. zkia.; URIBE-ETXEBARRIA, A. (1994): "Haurtzaroaren babesaren instituzionalizazio prozesua Hego Euskal Herrian (1900-1930)". *Tantak*, 11. zkia.

<sup>3</sup> Honela adierazten da garaiko pediatria espainiar garrantzitsuen zenbait idatzitan.


<sup>4</sup> Honela, 1791. urtean Elgoibarren elkartutako batzordeak probintzia osorako exposito etxe bat sortzearen proposamena egin zuen. 1803an Expositoei buruzko Arautegia. Aurretik 1794 eta 1796 Expositoei buruzko Erregelamendu Errealei zenbait aldaketa egin eta zenbait zehaztapen ezarri ziren. 1844an Exposito Arautegi berria eta 1891ko arautegiaren berrikuntza.

<sup>5</sup> Datu hauek eta artikulua honetan azalduko diren beste datu zehatzak Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxibategitik aterata daude. Kasu honetan 1904-1912 Tolosako Partiduko Ama Etxearen Erregistro Liburutik, 5396 Karpeta 2 espedientetik.

<sup>6</sup> 1912-1945 urteen arteko umeen sarrera kopuruak, amarekin joandakoak, inudeekin ateratakoak eta heriotza-tasari buruzko datuen bilketa 1946ko *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faisoroko Sehaska eta Ama Etxearen Memorian* ikus daitezke.

<sup>7</sup> Mende honen hasierako Gipuzkoako prentsan askotan inudeen eskakizunak eta agentzien zerbitzuak azaltzen ziren.

Ramo de Expósitos: *Patente, Obligaciones recíprocas de la Administración y de las nodrizas e Instrucciones*. Donostia. Gipuzkoako inprimategia, 1909.



hik hasi

DONOSTIA

hh  
hik hasi

onam ta zahar Ezeru



Unibertsitatea  
Donostia  
Hezikuntza eta  
Historia Saria